



## "Altsasukoa oso kontzertu berezia izan zen"

Pello Reparaz arbizuarraren ZETAK taldeak kontzertua eskaini zuen Altsasuko festetan / 5

**Eskola garraioarekin sortutako arazoak konpontzeko bilera egin dute gobernuarekin / 9**

**Juan Luis Maizak 55 eta 59 adin arteko Europako duatloi txapelketa irabazi zuen Bilbon / 16-17**

**265 sakandar animatuko dira Sakanako Bizikleta Egunean Ziordia eta Irurtzun lotzera / 15**

**Castillo Suarezek 'Alaska' poesia errezitara eskaini zuen; liburu baten aurrerapena / 23**

### ALTSASU

INICIACIÓN 9:00-11:40 (1,2,4)  
INICIACIÓN 17:00-19:00 (1,2,3,4)  
A1+ 18:00-20:00 (1,2,3,4)  
A2 19:00-21:00 (1,2,3,4)  
A2/B1 9:00-11:40 (1,2,3)  
A2/B1 18:00-20:00 (1,2,3,4)  
A2.2 9:00-11:40 (1,2,3)  
A2.2/B1 18:00-20:00 (1,2,3,4)  
B1+ 9:20-12:00 (1,2,4)  
B2 19:00-21:00 (1,2,3,4)  
EGA 17:00-19:00 (1,2,4)

(1) ostialduna, (2) ostiratsa, (3) ostekoak, (4) osteguna

AUTOIKASKUNTZA MODALITATEA  
MINTZAKIDE (DOAN)

Sakana  
22-23

aek  
eskola praktikoa

### ETXARRI ARANATZ

INICIACIÓN (Ordutegia zehazteko)  
B2 15:00-16:30 (1,2,3,4)  
HITANO IKASTAROA (2022ko udazkenean larunbat goizetan)

### IRURTZUN

INICIACIÓN 18:00-20:00 (1,2,4)  
INICIACIÓN 9:30-11:30 (1,2,4)  
A1 9:30-12:30 (2,4)  
B1 15:00-16:30 (1,2,3,4)  
B2 9:15-12:15 (2,4)

BEKAK: %90-100

948 468 258 | sakana@hoek.eus



Pello Reparaz Zetak taldeko kidea promozio argazki batean. UTZITAKOA

# "Abestien 360 graduak lantzen eta zaintzen ditugu"

**PELLO REPARAZ ZETAK**

Zetak taldeak kontzertua eman zuen Altsasuko festetan. Hiru urteko ibilbidean gehien entzundakoen zerrendetan sartzea lortu du zenbait abestirekin, azkena 'Zoriontasuna'

**Erkuden Ruiz Barroso** ARBIZU

2019ko urtearen amaieran aurkeztu zuen Pello Reparaz musikari arbizuarrak bere proiektu berria: ZETAK. Musika elektronikoko talde bat da ZETAK, euskaraz, baina zerbait gehiago izateko ere jaio zen. Altsasuko festetako larunbatean eman zuen kontzertuan beteta zegoen Foru plaza. Reparazek aitortu duenez, orain arte eman duen kontzertu garrantzitsuenetarikoa izan da. **Altsasuko kontzertuarengatik urduri zeunden. Zergatik?**

Ohikoa izaten da urduri egotea. Kanpoan aritzen gara, Euskal Herriko txokoetan baita kanpoan ere, eta jendetza izaten dugu parean. Baina etxean jotzen duzuenean badakizu hor egongo direla lagunak, familia, nola ez, eta zure eguneroko bizitzan aurrez topatuko dituzun horiek guztiak. Horrek badauka plus bat, ilusioa egiten du, baina aldi berean presio puntu bat ere bada. Horregatik nik uste urduri jarri nintzela.

**Pankarta ikusi eta lasaitu zinen.**

Oso ederra izan zen. Oso urduri nengoen, taulara igo nintzen,

letrarekin ari nintzen eta ez nintzen gai izan pankartan jartzen zuena ondo irakurtzeko zati instrumentala iritsi zen arte. Orduan irakurri nuen: *Aurrera Pello eta Altsasu. Eskerrik asko!* Hori ikusi nuen eta ez nekien nor egin zuen pankarta, nire susmoak banituen, baina momentu horretan ez nekien. Kontzertuaren ondoren Altsasu Gurasoak-en partez eginiko zerbait zela jakin nuen, *Aurrera Altsasu* abestian nire parte hartzea eskertzeko, eta ederra da. Gauzak gogoz, ilusioz eta benetan sinisten egiten direnean, gerora bueltan etortzen denean, esker mezu bat bada ere, oso ederra da. Zentzua ematen dio gure lanari, eta arrazoia ederrena ez bada ere, Altsasuko herriarekin gehiago lotu nau eta oso harro nago abesti horretan parte hartu izanagatik.

**"ZETAK EUSKARARIK GABE EZ DA ZETAK; ATEAK ITXI BAINO GEHIAGO IREKITZEN DIZKIGU"**

**Kontzertua baino ikuskizun bat da.**

Hori da gure apustua. Azkenean, abesti baten inguruan egon daitezkeen 360 graduak lantzea eta zaintzea gustatzen zaigu eta denetan ikus daitezke: ikus-entzuzkoak, bisual guztiak, sare sozialetan komunikatzeko modua eta abar. Hori dena zaintzea gustatzen zaigu eta zuzeneko zaintzeko orduan badira atzeko gauza asko, haien artean, argia, mugimendua, soinua bera... dena. Hori guztia zaintzen dugu, eta jendeak sentsazio hori du, show bat dela.

**Foru plaza bete zen. Ikusmina bazegoen. Espero zenuen? Zer sentsazioarekin gelditu zara?**

Egia da aurreko asteetan eta hilabeteetan jende askok galdeztzen zidala kontzertu horren inguruan, eta egia da ere aurten ZETAK-en kontzertu guztietara jende asko joan dela. Ez nuen Altsasun gutxiago izatea espero, inolaz ere. Ikusmina aipatu duzu, eta sentitzen dut kontzertu honek bestelako entitate bat garatu zuela. Bazegoen ikusmin berezi bat, jende asko modu batera edo bestera esatearren aztertzer



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**GIDARIDUN LEHIO BERRIAK**  
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



joan zen ZETAK-en fenomeno bera edo kontzertu horren inguruan sortu zen zurrumurru hori. Bitxia da, eta taularen gainetik sumatzen zen. Jendea nahiko adi zegoen. Gure zalegoa ere bazen, inguruko jendea, eta oso ederra izan zen ere.

### **ZETAK sortu eta pandemia etorri zen. Zer moduz joan da pandemia ondorengo uda?**

ZETAK-ek bizi izan zuena hori da. Oso fuerte atera ginen. Errepidean abestia 2019ko ekainean eta diskoa azaroan publikatu genuen, bost zuzeneko eman, pila bat genituen loturik, eta orduan pandemia etorri zen. Denak bertan behera gelditu ziren. Baina ZETAK ezin da asko kexatu, pandemian zehar ere kontzertu asko eman ahal izan ditugu.

### **Baina kontzertu desberdinak.**

Oso desberdinak. Horregatik orain dator aldaketa garrantzitsu eta indartsua normaltasun berri honetan azaltzea eta kontzertuak ematen hastea. Aktibazioa oso erradikala izan da. Urte oso aktiboa izan da, ZETAK-ek kontzertu pila eman ditu, eta Euskal Herri osoan aritu gara, baita Euskal Herritik kanpo, bai Estatuan eta Amerikan hirutan egon gara: Kolonbian, Mexikon bideoklipa grabatzen, New Yorken kontzertuak ematen... Oso pozik gaude.

### **Mugak gainditu dituzue. Euskararekin mundura.**

Bai. ZETAK-en idiosinkrasiaren parte da, inongo zalantzarik gabe. ZETAK euskararik gabe ez da ZETAK, eta horri heldu diogu eta sentsazioa dugu euskarak ixten dizkigun ateak baino gehiago irekitzen dizkigula.

### **Musikaren lengoia?**

Ez bakarrik musikaren hizkuntza. Askotan esan ohi da hori. Baina euskarak berak ere egiten du. Mundua gero eta globalizatuago dago, hori bistakoa da, eta gero eta homogeneoagoa da dena, baita artean ere. Artista batek desberdintzeko bilatu ditzakeen faktoreen artean guk oso nabarmen bat dugu: hizkuntza nahiko txiki bat, 700.000 pertsonak ezagutzen duten hizkuntza bat, eta nik uste horrek ezagutzen dutenen artean eta ezagutzen ez dutenen artean interesa piztu ere egiten duela.

### **ZEID jaialdia antolatu zenuten ere. Zer moduz joan zen?**

Guretzako sormen intentzioa oso garrantzitsua da. Sormen inten-



Zetak-ek Altsasun eskaini zuen kontzertua. IBAI ARRIETA

tzioa da abesti edo disko batek jendeari helarazi nahi dion mezua edo sentipen hori presente izatea momentu oro. *Zeinen ederra izango den* abestia atera genuenean, abesti hori jende askoren itxaropen horren helduleku bihurtu zen eta, egia da, helduleku hori, abesti hori gauzatzeko garaian eta kontzertuari buelta emanez eta sormen intentzio horri so eginez, pentsatu genuen, zergatik ez? *Zeinen ederra izango den* abestiak etorkizunaz, hau guztia pasatzen denean ospatuko dugunaz eta abarrez hitz egiten du, eta hori guztiari benetako iruditeri bat ematearren sortu genuen jaialdi bat. Guk ez genuen jaialdirik buruan. Guk esan genuen: ospatuko dugu, joko dugu guk, lagunak bat gonbidatuko dugu edo dena delakoa. Sarrerak salgai jarri genituen inongo informazio handirik eman gabe eta aste batez 1.500 sarrera saldu genituen. Pentsatu genuen hura serioa izango zela, eta azkenean BEC betetzen eta jaialdi erraldoi bat antolatzen bukatu genuen. Proiektuarentzat ikaragarria izan zen esperientzia, eta kontzeptua eta sormen intentzioa babesteko eta jendeak hobe ulertzeko ezinbestekoa izan da. Oso pozik.

### **Eskaini dituzuen kontzertuetatik ba al duzu gogokoren bat?**

Badaukat, bai, oso berezia eta izan da Altsasukoa. Azkenean

etxeokontzat jotzea eta kontzertu on bat eman izana oso berezia da niretzat. Egun batzuk pasa dira eta sentitzen dut, alde batek, lasaitze bat dela, azken asteetan sentitzen nuen presio moduko bat etxean jotzeko horrekin, eta azken egunean urduri-urduri nengoen, eta orain lasaitu naiz. Gainera, oso pozik nago heldu zaidan *feed-back*-a oso positiboa delako.

### **Pandemia sortzeko baliatu zenuen, eta ia ereserkiak bihurtu diren abestiak sortu ditu ZETAK-ek: 'Zeinen ederra izango den', 'Hitzeman'...**

Horiek hitz potoloak dira, baina egia da adibide nahiko argia dela *Zeinen ederra izango den* abestia. Nik abesti horrekin sentitu dudana, jendeak bueltan eman didan hori, *Begietara begira* abestiarekin sentitu nuen bere garaian. Baina hain sakonki eta intentsoki nik uste ez dudala bestelako abestiekin sentitu. Izan ditugu arrakasta izan duten abesti asko bai *Vendetta*-rekin bai ZETAK-ekin, baina *Zeinen ederra izango den*-harago joan da, eta beroago sentitu dut. Jon Maia eta biok elkarrekin idatzi genuen Altsasuko auziari loturiko abestian zioen bezala *Txarrenari onena*, kasu honetan ere aplikatu daiteke: zulora joan ginen, niretzat kristoren kolpea izan zen ZETAK prestatzen denbora asko pasa nuelako eta esfortzu eta lan handia egin nuelako, eta

bat-batean pandemia heldu zen. Baina horregatik ez balitz *Zeinen ederra izango den* abestia ez zen existituko. Begi bistakoa da niretzat oso abesti berezia eta garrantzitsua dela nire ibilbide osoan zehar.

### **Zertan inspiratzen zara sortzeko orduan?**

Ez dakit oso ondo zer den inspirazioa. Inspirazioan baino lanean sinisten dut. Estudioan sartzen ditudan ordu horietan guztietan. Horretan sinisten dut; formakuntzan eta gauzak barrutik eta benetan sinetsiz eta sentituz egite horretan. Oso egun txarrak ditut ere batzuetan estudioan. Estudioan sartu, hamar ordu pasa eta etxera itzuli eta konturartzea desastre bat izan dela. Hori nahiko gogorra da, baina egia da halako egunei esker bes-

## **"GURETZAKO SORMEN INTENTZIOA OSO GARRANTZITSUA DA; MEZUA PRESENTE IZATEA"**

## **"PANDEMIAGATIK EZ BALITZ 'ZEINEN EDERRA IZANGO DEN' ABESTIA EZ ZEN EXISTITUKO"**

te egun batzuk, ez dakit zergatik, estudioan azaldu eta gauza ederak sortzea tokatzen dela. Hori gauza polita da. Beraz, lana, orduak eta esfortzua.

### **Estilo edo soinu propioa sortu duzuela esan daiteke?**

Horretan lan asko egin dut. Soinu identitateaz ari gara, eta nik uste soinu identitatea proiektu batean oso garrantzitsua dela. Askotan ahots bat dago, eta nire ahotsa ere nahiko ezaguterraza da, eta jendeak entzutean badauki ZETAK dela. Niri gustatzen zait jendeak argi izatea noiz den ZETAK, noiz den *Vendetta* eta noiz ari naizen elkarrizketa bat egiten. Ahotsa ez da dena, eta soinu identitatea sortzen esfortzu handia egin dut. Ekoizpena asko gustatzen zait eta ZETAK-en kasuan, bai, soinu identitate propioa duela esan dezakegu. Lehenengo eta bigarren diskoen artean salto eta desberdintasun handiak daude, baina aldi berean amankomuneko gauza asko daude ere. Abesti bat entzun eta 25 sample ahots egon daitezke non jendea ez den ohartzen hor daudenik ere, baina subkonszientearekin jendeak ZETAK-ekin lotzen ditu. Badago otso moduko baten sample bat, gizonetzko baten ahotsa dela, eta hori abesti ia gehienetan sartzera behartzen dut nire burua identitate hori garatzen joateko. Benetan ezinbestekoa ikusten dut; jendeak sumatu eta sentitu behar du.

### **Nola garatu da ZETAK?**

ZETAK oso plastikoa da, momentuz. Proiektu bat da musikaz gain bestelako diziplinekin lan egiten duena, horiekin busti egiten dena eta retroelikatzen dena ere. Ikus-entzunezkoekin izan duen harreman hori, oso garrantzitsua da garatzen eta aldatzen joateko. Plastikotasun hori nahiko muturrekoa da. Oso disko ilun batekin atera ginen, jarraian pandemiaren kontu horrekin erabat influentziatua sentitu zen ZETAK, eta bestelako disko bat jaio zen berehala, hilabete gutxian, eta disko hori oso argia zen. ZETAK oso inprebisiblea da, eta nik uste horrek ematen diola errealitate eta naturaltasun zentzua proiektuari, eta oso sanoa da. Experimentazio eta askotasun marko horretan lanean jarraitu behar du Zetak-ek, ez dut uste betirako hala izan behar denik, baina orain arte etorri dena eta orain epe motzean etorriko diren proiektuetan bai.

### Kaleratu duzuen azken abestia Bomba estereo taldearekin egindako 'Zoriontasuna' da. Nola sortu zen kolaborazio hori?

Abestia Bomba Estereo proiektuan pentsatzen sortu nuen. Amankomuneko kontaktua badugu eta orduan ikusi nuen agian lortu genezakeela haiek abestia entzutea. Bomba Estereok Kolonbiako sustrai musika hori lantzen du, baina elektronikora eramaten du eta garaikidea bihurtzen du. Horrek badu Zetak-en idiosinkrasiarekin gauza asko amankomunean. Abestia euren abeslariaren erregistroa kontuan hartu idatzi nuen, proiektua kontuan hartuz idatzi nuen letra eta ZETAK-en marko estilistikoaren barruan, baina Bomba Estereo-tik gertu egon daiteken puntu batean. Dembow-a lehenengo aldiz erabili genuen. Abestia entzun zuten eta gustatu zitzairen, azalpena entzun zuten eta nirekin elkarrizketa bat izan ondoren are gehiago sinistu zuten proiektuan eta egitea erabaki zuten. Prozesua konplikatu izan da, baina aldi berean ederra.

### Bideoklip desberdin bat egitera animatu zarete ere.

Nik uste hori ere badela ZETAK-en parte bat; ikus-entzunezkoetan arriskatzea ZETAK-en parte bat da, eta kasu honetan ere bestelako bideo bat egitea erabaki dugu. Fana Adjani zuzendaria ikaragarria da, berak duen bisioa izugarria da; Emilio Valdes argazki zuzendariak parte hartu du... Horrelako proiektu batean parte hartzea oso ederra izan da.

### 'Itzulera' abestiaren bideoklipa ere berezia da, ezta?

Bai, plano sekuentzia bat da, bideoklipa jarraian grabatzen da. Erramun Martikorenaren bizitzako eta ibilbideko lehenengo bideoklipa da, eta horrek ere xarma eta berezitasuna ematen dio. Azken hilabeteen asko hitz egin da *Zoriontasuna*-ri buruz, baina *Itzulera*-ren fenomeno ez da normala izan. Ez dakit zer gertatu den abesti horrekin. Herri Urrats-en abestia da, eta eman duen kolpea ez da normala. Oso pozik gaude.

### Ez zenuten espero?

Inolaz ere. Askotan bista izaten dut ikusteko abesti baten ibilbidea zein izan daitekeen eta noraino iritsi daitekeen, abestiaren izaeragatik. Kasu honetan kale egin dut, eta oso pozik nago kale egin izanagatik. Ederra izan da sorpresa. Ez da oso ohikoa Herri



Pello Reparaz Zetak-en Altsasuko kontzertuan. IBAI ARRIETA

**"EXPERIMENTAZIO  
ETA ASKATASUN  
HORRETAN LANEAN  
JARRAITUKO DU  
ZETAK-EK"**

**"ETXEAN JOTZEAK  
PLUS BAT DAUKA;  
ILUSIOA EGITEN DU,  
BAINA PRESIO PUNTU  
BAT ERE BADA"**

Urrats-en abestiak horrelako inpaktua izatea Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo ere. ZETAK-en abestirik entzunena izan da. E-o-a horrek eman digun oparia gogoratzea izango da.

### Erramun Martikorena, Bomba Estereo, Oques Grasses... Kolaborazioak garrantzitsuak dira ZETAK-endako?

Aberaste prozesu horren parte da. Bestelako diziplinetako jendearekin kolaborazioak egiten baditugu, gure diziplinako jendearekin ere bai. Horien artean zorte handia izan dut ikaragarri miresten ditudan hiru pertsonekin hiru kolaborazio egin ditudalako. Iruditzen zait Katalunian dagoen gauzarik interesgarri-etariko bat dela Oques Grasses, eta Josep Monterorekin kolaboratzea eta berarekin sortzea izugarria izan zen. Erramun Martikorenak abesti batean gurekin parte hartzea betirako gogoratu dudan zerbait da, bera historiko bat da eta ZETAK-ekin musiko elektronikoko abesti batean parte hartzea niretzat oso handia izan da. Eta, orain, Bomba Estereo proiektu oso globala dela. Zer esan; luxua izan da.

### Eta aurrera begira, kolaborazio gehiago daude? Edo ezin da esan?

Bietan arrazoia duzu: baditugu eta ezin da esan. ZETAK ez da gelditzen, inolaz ere. Gaur irailak 20, asteartea, -elkarrizketa egin zen egunean- egun oso garrantzitsua izan da niretzat. Erantzun behar nituen mail guztiak erantzun nituen, eta telefonoaren mezu guztiak ere erantzun ditut. Aspaldi pilatuta nuen lan eta zerrrenda oso handi bat ere zerora utzi dut, eta etorriko dira gehiago, baina egia da gaur zorionez abestiak idazteari ekin diodala berriz. Prozesu hori hasi dut.

### Kritikak, hater-ak, memeak... Nola hartzen dituzu?

Konplikatu egiten zaidana, eta ulertzen kostatu izan zaidana da, zergatik duen mundu guztiak iritzi bat niri buruz. Esan nahi dut, ezagutu-ezagutu jende gutxik ezagutzen nau. Ez gai honengatik, baizik eta bizitzak jartzen dizkizun bestelako kasuengatik ere terapian izan naiz, eta nago. Orain oso ondo nago, baina erabaki dut terapian beti egotea. Zorte handia da erabaki horrek asko lagundu didalako. Oso zoriontsua naiz, antsietatea asko kontrolatzen dut eta egun oso pozik nago hartutako erabaki horrekin. Egia da taula gainera igo naizela eta exposizioa nik neuk aukeratu du-

dala, eta horrela dela esan digute. Horren kontra ez dut borrokatuko energia eta denbora galtzea izango delako. Baina egia da hasieran zaila egiten zaizula ulertzea pertsonaia publikoa bihurtzen zaren momentuan zergatik mundu guztiak duen iritzi bat zuri buruz ez zaituenean ezagutzen; onerako eta txarrerako. Ikaragarri maite zaituen jendea badago, ez zaituena ezagutzen; eta ikaragarri gorroto zaituen jendea dago, ez zaituena ezagutzen. Hori oso arraroa da. Baina horretara ohitu naiz eta horrekin bizi izan beharko dudala onartu dut. Lana egin dut eta pozik nago. Ez dut inolako arazorik sare sozialetan ikusten dudanarekin.

### Zer geratzen zaio ZETAK proiektuari egiteko?

Dena geratzen zaio. Oso proiektu gaztea da, zeresan handia eman du azken urteetan, baina bi urte ez da ezer. ZETAK proiektu berri bat da, eta espero dut urtetan eta proiektu desberdinetan asko aldatzea. Forma desberdin asko hartzea proiektuak. Ni neu ere asko aldatzea espero dut.

### Bi urte hauek izugarriak izan dira.

ZETAK-ekin erokeria izan da, baina proiektuaren bizitza horrela izan da. Bi urte baino, Vendetza-ren amaieratik hona lau urtez ari gara, eta lau urte horiek nire bizitzako intentsioenak izan dira. Taldearen agurra, Zetak-en aurretiko lana, kaleratzea, pandemia, bigarren diskoa jarraian, zuzenekoak... Eta tartean telebistan ere lan egin dut. Askok ikasi dut.

### Altsasuko kontzertuan zenbait pertsona izan zenituen gogoan. Sortu zitzaizun edo prestatuta eraman zenuen?

Ez nuen prest. Azken momentuan batzuk okurritu zitzaizkidan. Institutua aipatzea, adibidez, ez nuen buruan, baina sakandar guztiok elkartu izan gara hor. Berriz, Haize Berriak banda aipatuko nuela oso argi nuen. Askok eman dit eta oso harro nago nire bizitzako urte asko bertan pasatzeagatik. Oso ederra izan da. Gaur egun Altsasura eramaten nauen zerbait kirola da, Aizkorri kirol zentrorra astero joaten naiz. Garai batean ingelesera Pellor-ekin joaten nintzen... Sakandar bezala gauza askok eraman naut Altsasura, eta polita da Altsasurekin izan dudana harremana. Nire bizitzaren parte garrantzitsua da. Momentu horiek aipatzea ezinbestekoa da.



ASTEKOA

RAF ATXURI

## Halako lehengoratzeko bat

Iraileko bigarren erdian gaude, udazkena mustu berritan eta lan-ikas-edo jardunurte berriari ekin genion orain aste batzuk. Bitxia da, urte hitzak *ur* forman eta kontzeptuan du jatorria, eta aurtengoan bederen uretik gutxi eduki

dugu azken hilabeteotan. Hala ere, uraren zikloak oparotasun ala eskasean etengabe darrai, eta harekin batera gure biziak.

Bada, berriz ere udazken mantsoa haren haize zurrumbiloeekin, kolore festarekin eta *etxeratze*ko agindurekin-edo. Izan ere nahikoa etxeratze eta festa nahiz ebento baraua izan dugu joan diren bi urteotan, eta horratz berriz San Kiriko, S. Pedro zelai, Artzai Eguna, Donostiako Estropadak, pilota

jaialdi jendetsuak edota errepedeetako dentsitatea.

Hurrengo birusaldiaren zain gauden honetan, pandemia aspaldi urruneko mamu potrozorri eta zitala bihurtu dugu eta lehenagoko ohituretara itzuli gara apaxteko handirik gabe.

Ofizialki inork ez du aldarrikatu Covidaren heriotza, baina laster izurritearen inguruko irizpenak eta bilanak iritsiko zaizkigu. Kirmen Uribek

mundua hobe izango zela poetizatu zuen *Berrian* argitaratu olerki naif batean, baina ez dirudi inondik ere kokkatxo batean ere gora egin dugunik gizatasunaren aldapa malkartsuan.

Aitzitik, neguko uhinaldia mundu osoan apaltzen ari zelarik, ahaztuxea genuen gerraren izurritea harrotu zen berriz, zinez gordin eta gugandik oso gertu, Ukrainako lurretan, zirenak eta ez zirenak buruz behera itzulikatuz, eta

historiaren hariak nahasiz eta bihurrikatuz epe ezinago laburrean.

Eta honatx, zer den denboraren joana, soilik sei hilabete geroago, orain nor gogoratzen da Ukrainaz? Gasaren eta energiaren kostuen igotzeaz bai, ederki jabetu eta gogoratzen gara. Hotzarekin batera etorriko zaizkigun fakturak gogoan ekinen diogu udazkenari.

Honetan ere *dejavu* sentsazioa.

## HARA ZER DIEN

### Mozkortu dibertitzeko? Ba al dago alternatibarik?

#### SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUA

Inguruko helduen ereduak eta sozializazio eta gozamen esperientziak bizitzeko aukera izateak eragin nabarmena dute nerabeen alkohol kontsumoetan. Alkoholaren kontsumoa osasun publikoko arazo larria da, maila globalean. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) alkoholaren gehiegizko kontsumoarekin lotutako arriskuez ohartarazi du: osasunari eragindako kalteak, arrisku portaeren gorakada, osasun mentaleko arazoak eta indarkeria. Datu ugari erakusten dute alkohola dela gai-xotasunaren eta heriotza goiztiarraren arrisku faktore nagusietako bat.

Arrisku portaerez ari bagara, alkohol asko kontsumitzeak (gutxi gorabehera 5 unitate baino gehiago) epe labur batean (3-4 ordu), "consumo por atración" "kontsumo betekada" "edan betekada" "deitutakoa, arreata berezia jarri du gazteen artean duen prebalentziaga-

tik eta ondorioengatik. Eredu horrek modu kezagarrian eskalaten jarraitzen du nerabeen artean, baita kontsumitzen has-teko adina gero eta goiztiarragoa da, eta emakumeek kontsumitze-ko modu hori gero eta gehiago jarraitzen dute—gizonekiko aldea txikitzen ari da—.

Kontsumitzen duten nerabeetatik, askok, "consumo por atración" "kontsumo betekada" "edan betekada" egiten dute. Kontsumo mota hori, bizitzako etapa honetan, lesioak, lege arazoak, arrisku jokabideak (babesik gabeko sexua, ausarkeriaz gidatzea, borroka bortitzak...), egoera emozional negatiboak (antsietatea, depresioa, ideia suizidak, etab.) eta eskola arazoak (errendimendu txikia, desertzioa...) ugaritzearekin lotzen da. Alkoholak sortzen dituen kalte nabarmenak ikusita, zergatik aukeratzeko dute gazte gehienek asteburuetako gauetan praktika hori? Zer zentzu ematen diote gazteek kontsumoari?

Alkoholaren kontsumoa sozialki oso onartua dagoen praktika da, eta nerabeen artean berdinen taldeak bultzatu eta sustatzen du. Gazteen pertzepzioetik, dibertsioa da kontsumitzea arrazoi sendoe-

netako bat. Alkohola askatzearekin, lasaitzearekin, desinhibitzearekin eta «deskonektatzearekin» lotzen da (betebeharretatik eta errutinatik). Baita beste batzuekin elkartzean, lagun berriak ezagutzeko eta kide izateko edo kanpoan ez geratzeko aukera. Laburbilduz, alkoholak zentzua du dibertsio iturri eta sozializazio bide gisa kokatzen den heinean. Ba al dago alkoholari lotutako arriskuak murrizteko beste aukerarik?

Badaude beste batzuekin gozatzeko eta elkartzeko beste modu batzuk alkohola tartean egon gabe eta hauek dira bultzatzaileak. Azken aldiko ikerketek erakusten dutenez, jarduera batzuek sortzen dituzten sentimendu eta esperientzia positiboek ondorioak dituzte norberaren ongizatean, lotura estua dute zoriontasunarekin eta norberaren errerealizazioarekin, eta nabarmen eragiten dute osasun psikofisikoan.

Gazte askok kirola egitea aukeratzeko dute. Hamarkadetan zehar, kirola alkohol kontsumoaren babes faktore gisa hartu da. Baina hainbat ikerketa taldeek aurkitu dute ez dela kirola kontsumotik babesten duena (nerabe kirolariek ere kontsumo arriskutsuak baitituzte,

kirolariak ez direnek bezala); baizik eta, jarduera horrek sortzen dituen gozamen esperientziak, konpromisoa eta errerealizazio pertsonala dira kontsumo txikiagoarekin lotzen direnak. Hau da, kirolaren bidezko esperientzia positiboek alkoholaren kontsumoa babesteko faktore gisa funtziona dezakete.

Konpromisoa hartzea suposatzen duten jarduerak eta gozamen sako-neko esperientzia positiboak sortzeko gai diren beste jarduera batzuek ere garapen positiboa eta alkohol kontsumo txikiagoa sustatzen duten faktore gisa funtzionatzen dute.

Era berean, ukalezina da helduek duten zeregina nerabeek eguneroko jardueretan dituzten esperientziak errazteko edo oztopatzeko. Helduek zuzendutako jarduerak egiten dituztenek harreman sozialak izaten dituzte egunero irakasle eta entrenatzaile horiekin; harreman horiek eragina dute beren esperientzian, beren irakaskuntza filosofiarekin transmititzen dituzten portaeren, balioen eta jarrearen bidez.

Heldu horiek egiten eta esaten dutena, nola antolatzen eta komunikatzen diren, eta ekintza egokibaten edo akats baten ondoren

erantzun esanguratsu bat noiz eta nola ematen duten; errendimenduan ez ezik, dibertsio edo estres esperientzietan, jarduera hori uzteko edo jarraitzeko probabilitatean eta alkoholaren kontsumoasahiesteko faktore diren motibazio alderdietan ere eragiten du.

Laburbilduz, parekoekin eta helduekin egiten dituzten jardueren bidezko esperientzia positiboek rol garrantzitsua betetzen dute nerabeen bizitzan. Jarduera batean inplikaturik eta konprometituta sentitzeak, jarduera hori garatzeak esfortzua eta dedikazioa eskatzen baditu ere, ondorio garrantzitsuak sortzen ditu nerabeen bizitza emozionalean eta pertsonen artekoan.

Gurasoek, hezitzaileek, irakasleek, begiraleek eta osasuneko profesionalak zeregin garrantzitsua dugu; eta esperientzia positiboak errazteko jarduerak sustatu behar ditugu, erronkak proposatu behar ditugu eta, aldi berean, gure kontsumo propioak desnaturalizatu eta zalantzan jarri behar ditugu. Izan ere, beti esan dugun bezala, eredu gara gure adingabeentzat, eta gehiago ikasten dute egiten esaten dugunarekin baino. Azken batean, gure seme-alabek begiratzeko duten ispi-lua gara.

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus  
618 640 056

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua: NA-633/1995  
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



Tren erregionala garbitu berri den zubi gainetik pasatzear.

## Udalak Adifek hasitako lanak geldiarazi ditu

Beste edozein herritarri bezala, udalak trenbide azpiegituren mantentzeaz arduratzen den enpresari lanak egiteko obra baimena eskatzea eta memoria teknikoa aurkeztea exijitu dio. Dagoeneko agiriak udalaren esku daude

**Alfredo Alvaro Igoa** UHARTE ARAKIL Hegoaldeko herri sarrera trenbide azpitik pasatzen da. Trenbide azpiegituren mantentzeaz arduratzen den Adif enpresak azpiko trenbide pasa konpondu eta garbitzea nahi du. Berak kontratatutako langileak hilaren 12an, astelehenarekin, hasi ziren lanean. Trenbide zubiaren azpian dauden sasiak palarekin kentzen hasi ziren. Hilaren 14an, asteazkenarekin, zubiaren harrizko paretak ura eta harea presiorekin botaz garbitzen hasi ziren. "Udalean uste genuen garbiketa soil bat zela. Baina palarekin eta beste ikusi genituenean, eremu publikoa okupatzen zutela, gelditzea eskatu genien", azaldu du Txomin Uharteko Baleztena alkateak. Irailaren 15ean, ostegunean, izan zen hori. "Edozein uharterri bezala, udaletxean obra baimena eskatzea eta lanen memoria teknikoa aurkeztea eskatu genien. Eta hala badagokio, zerga ordaintzeko. Adifeko ordezkariak hurrengo egunean

aurkeztu zuten. Alde horretatik, Adifek oso jarrera ona izan du", azaldu du alkateak. Enpresak aurkeztutako agiriak udal arkitectoak aztertuko ditu eta hark oniritza eman edo egoki ikusten dituen oharra egin ondoren, lanei berrekinen diete.

Uharteko Arakil sarrerako zubian garbiketa eta mantentze lanak egin nahi ditu Adifek, honakoak: landareak eskuz kendu parame-tu bertikaletatik eta zubiaren eraikuntza osotik; sasitza kentzea eta inguruko eremuaren azaleko garbitzea; azalaren garbitzea eta prestatzea; metalezko elementuak margotzea; eraikuntzan edozein motako konponketa edo junturak berdintzea; metalezko baranda jartzea; trabesei eta errailei eusten dien harri pila, balastroa, gordetzeko metalezko parrilla jarri; habe eta zutabeetan dauden zuloak konpondu eta urak kanporatzeko horman zuloa egitea. Lanek 76.000 euroko aurrekontua dute eta hura despeditzeko lan-gileek hiru hilabete dituzte.

### Harresia

Jakina da Erdi Aroan harresitutako herria zela Uharteko Arakil. Herritarren artean gauza jakina da hori. Eta haien susmoa da trenbideko zubia egiteko garai bateko harresiko harriak erabili zituztela. "Alde horretatik, balio sentimental bat du zubiak" aitortu du Uharteko, "baina ez udalakez Nafarroako Gobernuak ez dugu hura babesteko katalogatuta". Alkatea foru administrazioko arkeologia saileko ondare ataleko arduradunekin harremanetan jarri zen zubiak izan zezakeen balioa jakiteko. Adierazi ziotenez, "posible da harresiko harriak berrerabili izana. Baina haien itxura trenbidea egin zen garaikoa da, XIX.

### UDAL ARKITEKTUAK ENPRESAREN TXOSTENAK AZTERTU ONDOREN HASIKO DIRA LANAK

### Uharteko Historia laburra

- **XI. mendea** Uharteko Arakilen lehen aipamenak.
- **1355-11-10** Luis infanteak Uharteko Arakilen elkartu zituen Agiregi, Etxabe, Mendikoa, Argidoain, Blastegi, Ilardia eta Epeloa herrietako biztanleak. Herriak uzteko eta Uharteko Arakilerako bizitzera joateko agindu zien. Ondorengo egunetan erabaki zen nola eraiki behar ziren etxeak. Lanek, zailtasunekin, aurrera egin zuten jendeak nahiago zituelako beraien aurreko herriak eta haietara bueltatzen ziren.
- **1359** Amurgin, Muztillano, Urzegi, eta Gatizanokoak batuko ziren. Herria gotortuz gipuzkoarren eta lapurren erasoez hobe babestea zen asmoa.
- **1401** Harriko harresia eraikitzen hasi ziren.
- **1428-30** Gaztelako tropek herria inguratu zuten, baina harresiagatik onik atera zen.
- **1432** Erregeak Uharteko defentsak konpondu eta gotortzea agindu zuen.
- **1461** Herriak Gaztelako tropei aurre egin zien.
- **1512 ondoren** Gaztelar konkistatzaileek Uharteko gotortu zuten.

mendekoa. Hasiara batean zubiaren habeak metalezkoak ziren eta, ondoren, porlanezkoengatik ordezkatu zituzten".

Alkatearen arabera, gobernu teknikariendako "zubiak ez du baliorik eta aurreikusitako lanak arazorik gabe egin daitezke". Uharteko nabarmendu duenez, "egiten hasi diren lanak ez dira ohiko mantentzearenak. Horiek zubiari on eginen diote, egitura hobetzeko lanak baitira. Burdinezko egitura agerian, oxidoa sartu eta egituraren arazoak sorlituzake. Saneatu beharra dago".

## Goi ur hornidurako sarea konpontzera

Etzarri Aranazko Udalak Amaiturrietatik ur biltegiara joaten den hodia berritu du

### ETXARRI ARANATZ

Nafarroako Gobernuaren despopulazioaren kontrako dirulaguntza batek Etzarri Aranazko Udalarari aukera emanen dio aurtentzako aurreikusia ez zegoen lan bat egiteko: Amaiturrietatik ur biltegiara arteko ur hodi sarea konpontzea. Bargako iturburutik Artola dermionan dagoen ur biltegiara doan hodia 500 bat metroko luzera du. Garai batean mikrozeimenez egindako hodia zaharra da, hainbat haustura eta ur ihes ditu eta horiek konpontzeko eginen ditu udalak lanak. Guztia aurrekontua 296.805,47 eurokoa da eta laguntza 198.261,72 eurokoa. Lanak heldu den urtean hasiko dira.

Aurki kisugileak musika eskolan lanean hasiko direla jakinarazi du Silvia Marañon Chasco alkateak. Igogailua jarriko dute ikastetxean, eta urte akaberarako erabilgarri izanen da. Bestalde, udal eraikina da Sakana hiltzea eta haren ondoan zatikatze gela egin da. "Hura behar bezala jantzeko oinarriko altzariak jaso ditugu dagoeneko. Makinaren bat iristea falta bada ere, guztia egoki jarri eta udazkenerako martxan jarri nahi dugu gela", azaldu du Marañonek. Bestetik, jakinarazi du San Donato eskola publikoan udan hiru lan egin dituela udalak Hezkuntza Departamentuaren dirulaguntzarekin: komuna berritu, zenbait ate aldatu eta Ikasnovan gelan hainbat berrikuntza egin.

Bukatzeko, Toki Azpiegitura Planaren bidez bi lan egin nahi lituzke udalak: Lizarragabangoan asfaltatu gabe dauden kaleetan dagoen berritzea eta Kalamurtxein dagoen arrisku egoera zuzendu. "Ibairen ur emariaren indarrak babesteko harri lubeta bat egin zuten, baina ibaiari zati bat kendu zioten. Hura konponduta, goiko etxeendako arriskua kendu nahi da", argitu du alkateak.



Osasun publikoaren aldeko kontzentrazioa osasun etxe parean. ARTXIBOA

## Osasun eremuan bost mediku daude

Astelehenean hasi zen bosgarren medikua. Osasun kontseilariak esan duenez, "asistentzia estaldura finkatzen ari gara. Eta osasun taldeak beti bermatu du". Lan taldearen lana goraipatu zuen eta ondoko osasun eskualdeetako laguntza ere

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Burunda mendebaldeko Osasun Eremuan bost mediku daude astelehenaz geroztik. Haietako batek lanaldiaren zati bat egiten du Ziordian astelehen, asteazken eta ostiralean, gainontzekoan, Altsasun aritzen da. Hiru egun horietan Olatzagutian beste mediku bat egoten da. Gainontzeko hiru sendagileak Altsasuko osasun etxean ari dira lanean. Azken Osasunbideko martxara egokitzeke beste mediku batekin trebatzen egon da aste honetan.

Bestalde, eremuko mediku falta hizketa gai izan zen Nafarroako Parlamentuan joan den ostegunean. I-Eko Marisa de Simon Caballerok adierazi zuen eremuko mediku falta luzatzen ari den egoera da. "Egoera dramatiko da. Eta herritarren artean desastre itxura orokortua sortu du. Egoera jasangaitza da eta osasun eremuko pertsonen osasunari eragiten dio. Badakit zer gertatu zen Lan Eskaintza Publikoarekin (bi plaza emateko daude). Ez di-

zut miraririk eskatuko, baina ekiteko eskatzen dizut", esan zion de Simonek osasun kontseilariari. Horregatik, parlamentariak osasun kontseilariari galdetu zion noizko aurreikusten duten sei mediku plaza horiek betetzea.

Santos Indurain Orduña kontseilariak ziurtatu zuenez, "egoera bideratzeko eta osasun eremuan zerbitzuak finkatzeko sutsu ari gara lanean". Udalekin eta Osasun Kontseiluarekin elkarlanean ari direla gaineratu zuen. Parlamentuan azaldu zuen lau mediku zeudela eta astelehenean mediku berri bat hasi zela lanean. Eta sendagileak lortzeko hainbat bide lantzen ari direla azaldu zuen kontseilariak.

**HERNEGUN, ORDEA, HIRU HERRIETARAKO HIRUZPALAU SENDAGILE ZEUDEN ATZERA ERE**

**Berme eske**

E-Ikoak "bermea" eskatu zion "15 egun barru osasun etxearen atean halako kartelik ez irakurtzeko: medikurik ez dagoelako larrialdiak edo atzeratu ezin diren kasuak besterik ez ditugu artatuko". Kontseilariak azaldu zuenez, oporregatik edo bajenagatik izan ziren halakoak udan. "Larrialdiak beti hartzen dira. Larrialdiak ez direnak, baina beste egun baterako ezin direnak atzeratu, horiek bermatzen ziren. Medikuek egonen direla, ezin dugu bermatu. Ahalegin guztia artatzea bermatzean jartzen ari gara", ziurtatu zuen. Zailtasunak onartu eta lanean segitzeko konpromisoa adierazi zuen.

Kontseilariak azaldu zuenez, "erizaintza bi profesionalekin indartu dugu, 8 daude". Eta nabarmendu zuen erizainen gaitasuna eta haiek egin ditzaketan lanak. Haien lanaren balioa aitortu zuen. Indurainek gaztigatu zuenez, harreran 7 langile ari dira lanean.

## Hondakinak bereizteko lanketa egin zuen Mank-ek festetan

Ostalariek egoki bereizteko informazioa, materia organikorako pertzak eta edukiontziko giltza dute

ALTSASU

Zero Zabor Komertzioak kanpainarekin Altsasuko ostalari gutxi batzuk materia organikoa banatzeko pertza eta edukiontzi marroirako giltza hartu zituzten joan den urtean. Sakanako Mankomunitateko Hondakin Bilketa Zerbitzuko hezitzaileak hilaren 13an Altsasuko 30 tabernetatik pasa ziren hondakin bereizteko egokiari buruzko informazioa eta hori egiteko materiala eman zien.

Ostalaritza hondakin sortzaile handia denez, hondakin horiek

egoki bereiztea beharrezkoa da behar bezala birziklatzeko. Gainera, Hondakin Legeak guztiok derrigortzen gaitu materia organikoa bereizirik biltzea. Sakanako ostalaritzako establezimendu ugari eredugarriak dira bereizketan eta Mank-ek Altsasukoak ere hala izatera gonbidatu ditu. Horrekin batera, Mank-ek Altsasuko Udalarekin hitz egin zuen eta hark ez ditu obrako edukiontzi handiak jarri hondakinak hara botatzeko. Ondorioz, Mank-eko bilketa puntuetan edukiontzi gehiago jarri zituen.

**AISIALDIKO  
BEGIRALEEN  
LAN POLTSA**

**Gutxieneko baldintzak:**

**Euskaraz jakitea, ahoz nahiz idatziz.**

**C1 egiaztatu beharko da.**

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua edo horren baliokidea.**

**Kontuan izango da:**

**Gidatzeko baimena eta autoa izatea.**

**Aisialdiko begirale titulua.**

**Harremanetan jartzeko modua:**

**Interesa dutenek beren**

**curriculum honako helbide**


**honetara igorri beharko dute:**

**euskara1@sakana-mank.eus**

**Mank**  
s a k a n a

0 km  
SAKANAKO  
GIDA

260  
KLIK BAKARREAN



Zure komertzioa  
Gidan agertzeko:  
948 564 275  
661 523 245

guaixe

SAKANAKO GIDA

BELEIXE IRRATIA

AGENDA

DUELA 25 URTE...

ZORION AGURRAK





Irurtzango autobus geltokian jendea autobusera igozten. ARTXIBOA

ARAKIL / UHARTE ARAKIL / ERGOIENA

Ziorditik abiatu eta herriz herri ikasleak jasotzen zituen autobus batek joan den ikasturtean. "Herri guztietan jasotzen zituen ikasleak, Iruñean zegoen institutura eramateko. Ikasturte honetan ezustekoa hartu dugu autobus linea hori kendu dutelako eta Lanbide Heziketako erdi mailako ikasleak eta batxilergoa ikasten ari diren ikasle batzuk baino ez dituzte jasotzen". Uhar-te Arakilgo guraso batek Patxi Vera Donazar Nafarroako Arartekoari bidalitako kezu gutunaren zati bat da goikoa. Iruñean Lanbide Heziketako (LH) Goi Mailako 2. maila ikasten ari da etxeko bat eta ikastetxera joateko bitartekorik gabe dago.

Arakilgo alkate Oihana Olaberria Jakak jakinarazi duenez, "Sakanan badira halako kasu gehiago, Arakilen edo Ergoienan esaterako. Baita Imotzen, Larraunen, Basaburuan eta Itzan ere". Jakinarazi duenez, "LHko Goi Mailakoendako sekula ez da autobusik egon, Hezkuntza Departamentuko buruen iritziz, adinez nagusi direnez, gidabaimena atera eta beraien kabuz joan daitezke".

Olaberriak badaki zertaz ari den urtetan Irurtzango eta Arakilgo udalek Iruñerako eskola garraioa antolatu baitute LHko Ertain eta Goi Mailak ikasten ari diren edo beste ikasketak batzuk egiten ari direnendako. Irurtzango Atakondoa eskola publikoan Derrigorrezko Bigarren Hezkun-

# Eskola garraioa ikasteko traba

Hezkuntza Departamentuak, estreinakoz, bere gain hartu du Lanbide Heziketako Erdi Mailako ikasleen Iruñerako eskola garraioaren antolakuntza. Goi mailako edo Batxilergoko hainbat ikasle eskola garraiorik gabe gelditu dira

tza 2. mailara arte ematen dutela. "Beste bi kursoak egiteko erreferentziako institutuak dituzte: A ereduak La Granjan eta Dkoak Biurdanan. Erreferentziako ikastetxe horietara joaten diren ikasleek doako eskola garraioa dute. Baina beste ikastetxe bat aukeratuko balute pagatu egin beharko lukete". Alkateak jakinarazi duenez, "ikasturte honetan LH Erdi Mailako ikasketek ere doako eskola garraioa dute". Hor ere erreferentziako ikastetxeak daude.

Gainera, departamentuak aldatetako egin ditu eta Arakilgo

**"DENA IRURTZUNEN ZENTRALIZATU DUTE, HERRI TXIKIETATIK HARA JOAN BEHAR DUTE"**

ikasleek Irurtzunera joan behar dute han autobusa hartzeko. "Dena Irurtzunen zentralizatu dute. Despopulazioa aipatuko dute gero, baina herriak zigortzen ari dira". Eta aurretik jakinarazi gabe, iraila hasieran guztia gurasoendako antolatzea zaila dela gaineratu du.

## Udalen ekimena

Egoera "urteko urtera okerrago" zegoela ikusita, Irurtzango eta Arakilgo udalek eskola garraioa antolatzeari ekin zioten. Pausoak eman badira ere egoera okerrak segitzen duela jabetuta, eskaintzarekin segitzen dute. Urteak daramatzate. Agorrilerako egiten dute deialdia eta autobus bete ikasle bidaltzen dute Iruñerantz. Haietatik 40 bat irurtzundarrak izanen dira eta gainontzeko hamarrak edo arakildarrak. "Udalek eskola garraioa antolatu

dugunean herri guztietako ikasleak hartu ditu autobusak".

Bi udalek Iruñerako eskola garraioa antolatzen dute, "behar zen herri guztietan hartzen ditu autobusak ikasleak". Zerbitzua bermatzeko bestelako neurriak ere hartu izan dituzte: "joan den ikasturtean bi ikaslerendako taxia ordaindu genuen". Familiek ordaintzen dute zerbitzua. "Baina defizita udalek gure gain hartzen dugu. Hau da, Iruñera garraio publikoan joateko txartelak "X" euro balio du. Udalok kopuru hori baino gehiago ez diogu kobratzen ikasleari edo

**"GARRAIO FALTAREKIN EZ DA BERMATZEN GUZTIEK IKASTEKO AUKERA BERAK IZATEA"**

bere familiari. Txartela baino gehiagoko gastu hori gure gain hartzen dugu", azaldu du Olaberriak. Defizita, 12.000 euro dira.

## Zigortuta

Departamentuak "zigortu" dituela sentitzen dute egoera horretan dauden gurasoek eta ikasleek. "Goi mailako ikasketak egin nahi eta garraio faltagatik ezin. Ez da bermatzen guztiek ikasteko aukera berak izatea". Olaberriak Arakilgo eta Larraungo bi familiaren kasuak aipatu ditu: "gurasoak lanean daude eta ez dute aukerarik seme-alabak Lekunberrira edo Irurtzunera autobusa hartzera eramateko. Kontziliazioa zaila da".

## Elkarlanerako deia

Nafarroako zati handi baten arazoa da. Horregatik, lau alkatez osatutako batzorde bat, Olaberria tartean zela, Carlos Gimeno Gurpegirekin (kontseilaria), Begoña Unzué Velarekin (Hezkuntza Baliabideetako zuzendari nagusia) eta Inma De las Cuevas Teranekin (Ikastetxe Finantziario, Ikasketa Laguntzak eta Zerbitzu Osagarrikoarekin nagusi) bildu ziren herenegun. "Guk, udalak, aditzeko proposamena eraman genion; guk dugulako herrien ezagutza, eta elkarlanean gauzak hobe egiten direlako".

Olaberriak azaldu duenez, "gai batzuk aztertze konpromisoa hartu dute. Gainera, eskola garraioa udalekin batera antolatze eskua luzatu diegu. Gu gara arazoa ongi ezagutzen dugunak. Batez ere, populazioa sakabanatuta duten udalekin". Horretarako, protokolo bat egin eta alde guztiak informazioa izatea nahiko lukete udal ordezkariak. "Proposamenen bat eginen dutela esan digute". Bitartean "arazo puntualak konpontzeko konpromisoa hartu dute".

Hezkuntza Departamentuak eskola garraioa bere gain hartzen duen aurreneko ikasturtea da. Olaberriak jakinarazi duenez, "zailtasun ugari izan dituztela aitortu digute. LHn azken orduan 2.000 eskaera gehiago izan dituztela eta horrek ekartzen duena". Udal ordezkariak "pozik" atara ziren bileratik, "ea landa eremuaren errealitatea kontutan hartzen duten. Baietz esan dute. Ea pitteka hobetzen den". Hala ere, departamentuak emanen dituen pausoak gertutik aztertuko dituzte udalek.

## KOLABORAZIOA

## Erronka soziala: suizidioa Pandemia isilari ahotsa jarriz

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

Ongi etorri guztioi irailera. Geure artean dauzkagu Sakanako azkeneko herrietako jaiak, oporrak pasa diren seinalea eta gauza askori hasiera, amaiera, elkarretaratzea eta agurra ematea tokatzen zaigu denoi. Hala dela, kontraesan horren guztiaren artean, emozioak elkarren artean gainjartzen diren momentua izanda, iraila da suizidioaren prebentzioaren hilabetea. Gaur egun, 15 eta 34 urte bitarteko gazteen artean heriotza kausa nagusia da, tumore arazoaren ondoren. Are gehiago, datuetan arreta jarriz gero, Nafarroan batez beste 50 pertsona izaten dira urtero bere buruaz beste egiten dutenak, ehuneko handiagoa izanda gizonezkoetan. Dena den, burututako suizidio bakoitzeko, 20 arteko saiakera ez-hilgarriak kontuan hartu behar dira, hauek ere ondorio larriak edukitzeagatik. Honek, gertatutakoari naiz sufritzen dagoen pertsonari ebazpen bat ematera behartzen gaitu.

Zoritxarrez, honako gaia tabu bezain delikatua da oraindik. Betidanik pentsatu izan dut bizitza kentzea oso pertsonala

dela, txikitatik "norbaitek bere buruaz beste egin nahi badu, ezin duzu ezer egin, hala ere egingo du" bezalako esaldiak entzuteagatik. Edonork erabakitzen duen zerbait balitz bezala, erabateko askatasunez, pertsona bakoitza bere bizitzaren jaun eta jabe dela ohoratuz. Hau da, zure borondate askatasunarekin erabakitzen duzu bizitza ez zaizula gustatzen eta zure bizitzaren jabe bakarra zarenez, horrekin bukatzea erabakitzen duzu. Zure inguruak inolako zer ikusi, esan edo egin ez balu bezala, baita egin beharrik ez balu bezala. Nahiago nukeen horren erraza izatea guztiz, gainontzekook ardura guztietatik salbuetsita geratuko ginatkeelako. Dena dela, guztion artean erantzukizunak kanporatzen jarraitzeak kezkatzen nau, bizitza bizi eta kentzearen jokoak, gurekin zerikusirik izango ez balu bezala.

Gaiarekiko kontzientzia falta dela eta, bizitza kendu duen pertsonaren hurbilekoa jendeak ala ez hain hurbilekoa garenok "baina, zerbait gaizki zegoen ala?" galdera klasikoa egitera ausartzen gara eta harriduraz

atxiki: "ez zitzaion ezer nabaritzen!". Gu geu egunero nola sentitzen garen erakusten lehenak izango bagina eta besteek bere aurpegian zer erakusten dutenari arretaz begira egongo bagina bezala, emozioak geure artean elkarbanatuz. Neure buruari galdetzen diot gu ohartu behar garen hori zer ote den, eta delako hori egonda, ohartu ahal izatea bilatzen dugun. Edota, aitzitik, askotan ez dugun begiratzeako asmorik. Halaber, kezkatu egiten nau depresioari buruz argi eta garbi ezin hitz egiteak, horrek desagerraraziko duelakoan. Horren ondorioa, dauzkagun arazoak norberak ezkatutzea dugu, ostera. Guztiok egiten dugun hori, alegia.

Bestalde, orokorrean erabilgarri dugun beste baieztapenetako bat "buruko arazoren bat izan omen zuen" da. Dirudienez, osasun mentalari buruz hitz egitearekin gertatutakoa justifikatuta dago, pertsona ez zegoelako ondo dagoeneko. Jakina! Ohikoena da buruko gaixotasun bat duen gutxiengo bat hain ezberdin sentitzea, non gaur egungo sekulako mundu inklusibo honetan geratu nahi ez duen. Gainerako pertsonok aldiz, gehiengoak, egunerokotasunean izugarri zorionsuak baikara. Ezta? Egia esateko, buruko osasuna ez lehenestek kezkatzen nau, bai beharrezko arretarik ez dagoelako baita nahitaez hain normala izan beharko lukeen zerbaitestigmatizatuta jarraitzen duelako ere, honek arazoa estrukturala bihurtzen duelarik.

Horrez gain, "zergatik ez zuen laguntza eskatu?" bezalako ageriko esaldia komentatzea ere bururatzen zaigu. Nola ez! Gu geu ondo sentitzen ez garenean laguntza eskatzea geure lehenengo aukera da beti. Izan ere, ia inoiz ez gara isiltzen arazoei dagokionean, horiek normaltasun osoz partekatuz. Gainera, besteengandik jasotzen dugun baita geure kabuz besteen arazoei eskaintzen diegun harrera eta ulermena ere bikaina dugu. Beraz, irakurle, honakoa da nire galdera: zuk zer egingo zenuke norbaitek laguntza eskatuko balizu? Hobeto esanda, zer



egingo zenuke bizitza kentzea burutik pasako balitzaizu? Isiltasuna. Isilune soziala. Zinez kezkatu egiten nau pertsona baten bizitzarekin zuzenean lotutako ezertaz hitz egiteko gai ez izatea. Barkatuko didazue, baina zerk dauka bizitzarekiko lotura gehiago, heriotzak baino.

Egunen batean denok hilko gara, nahi ez badugu ere. Baina bizitzarekin bukatu nahi izatea beste kontu bat da. Une horretan bertan egon bazara, nahiz eta denbora gutxiz, zertaz ari naizen biziki ondo dakizu. Bakardadeari buruz ari naiz, antsietateaz, etsipenaz, amorruez, izugarriko hutsune bati buruz ari naiz guztiz. Gauza ez da bizi nahi ez izatea, baizik eta modu horretan bizitzen jarraitu nahi ez izatea. Jendeak ondo gaudenean bakarrik maite gaituen gizarte batean non tristura, mina eta heriotzari buruz mintzatzeko lekurik ez dagoen. Hori bera errealitatea delako eta errealitatea bera deserosoa delako. Hainbestearinoko deserosotasuna, emozio "desatsegin" horiekin guztiekin egiten duguna hemen ez daudela itxuratzea baita, hemen bertan jarraitu ahal izateko. Gu geu ezkutaturik geratzeko. Arraioa! Hainbesteko gizarte deskonexio honengatik kezkatuta nago.

Ondorioz, isolatzea dugu aukera, ez baitago lekurik garen bezalakoak eta momentu horretan sentitzen dugunarekin adierazteko. Hori dela eta, ezberdina izatearen eta triste egotearen gauzarik txarrena zera da, jendeak gu desberdin ez bagina eta triste ez bageunde bezala jokatzeko nahi duela. Horixe da benetako suizidio soziala eta, beraz, erantzukizun

soziala. Alabaina, nola demontre egin dezakegu suizidioaren prebentzio ona, ondoezetan ez badakigu egoten eta etengabe deskonektatuta bizi bagara? Gehienetan, hor egotearekin eta horri guztiari leku bat ematearekin, horri buruz hitz egitearekin, entzutearekin eta balioztatzearekin nahikoa da. Gu geu ondo ez gaudenean geuretzat egotearekin hasi beharko genuke, ordea. Har dezagun behingoz ardura honako hau bizitzeko espazio atseginagoa bilakatzeko, guztiok batera baikaude bizitzearen borroka honetan.

Hau guztia esanda, irakurle, une txar bat pasatzen ari bazara, gogorazi nahi dizut estu besarkatzen zaitudala. Lasai, ondo dago horrela sentitzea eta ez duzu desberdin sentitu behar. Eskertzekoa da zure burua erakustea, dagoeneko gizarte indibidualista honetan, laguntza eskatzerakoan ausardia ikaragarria dago eta. Alabaina, saia zaituzte maitasunezko erantzuna emango dizuten pertsonen edo trebatutako profesionalen laguntza eskatzen. Gainerako guztioi gogorazi ere, tristuraz hitz egiteari ekitea, konponbidea ez dela beti izan behar parranda egitea. Saia gaituzte gizatasun handiagoz bizitzen, geure burua eta besteena hobeto zaintzeko. Mesedez, ez erabili "animatu zaituzte!" edo "beti triste zaude!" bezalako mezurik, horiek ez baitute ezertarako balio. Beharbada, geure emozioei sentitu eta erakutsi ahal izateko aukera emango bagenie, nor bere buruarekin hasita, ez litzateke beharrezkoa izango inolako seinalerik bilatzea. Hona hemen gure benetako erronka.

### DUELA 25 URTE...



### Erretaula, garbi-garbi

Joaquin Martinenak, San Martin Unxeko apaiza eta elizbarrutiko errestiturazio buruak, Antonio Blancok, Iruñeko zaharberritzaileak, eta Diamantino Jesus madeirarrak egin zuten Altsasuko elizako erretaula garbitzeko lana. Ondorioz antzinako eta berezko kolore bizi-biziak agerian utzi zituzten, azken horien artean gorria eta urre kolorea nabarmentzen ziren. Horrekin batera, aldarean zurezko motibo gehiago jarri zituzten: sagrarioa, prediku aulkiko euskarrria eta aldareari aurrean antzinako egurrezko frontisa jarri zioten.



Lizarra kalean errotonda egiten, saihesbidea ezkerretik doa.

## Saihesbidea, mugikortasun plana eta urbanizazioa

Irurtzungo mugikortasun eredua zehazteko prozesuaren lehen pausoak ematen hasi da udala

### IRURTZUN

Saihesbideko lehen faseko lanak aurreratuta daude, udalari jakinarazi diotenez lastailean des-pedituko dituzte. Eta orduan ibilgailu eta kamioi ugarik Irurtzun erdialdetik pasatzeari utzi-kiodite. Baina dagoeneko herrian mugikortasun plana egiteko prozesua martxan da. "Lehen kontaktuak egin ditugu herriko eragileekin eta kaltetuekin. Galdeketa ahalik eta irekiena pasa diegu haien iritziak jasotzeko", azaldu du Aitor Larraza Carrera alkateak. "Horrekin aurreneko proposamen bat eginen dugu eta parte hartze prozesu baten bidez Irurtzungo mugikortasun eredua zehaztuko dugu", gaineratu du Larrazak. Alkateak ziurtatu duenez, plana egiteko ez dute "ez prisarik, ez eperik. Gauzak lasaitasunez egin nahi ditugu, ahalik eta iritzi gehien jasotzeko", argitu du.

Bestetik, saihesbidearen, In-txaurreta kalearen eta Lizarra kaleko 20 eta 24 zenbakien arteko espazioan urbanizazioa egingen da. 10.689,2 m<sup>2</sup>-ko eremuan 39 etxebizitza eraikiko dira. Larrazak jakinarazi duenez, "administrazio tramiteak aurreratuta daude, eraikuntza proiektua eginda dago. Lanak urte bukarran has litezke". Irurtzungo Udalak liburutegi ondoan musika eskola eta 200 pertsonarendako auditorioa egin nahi ditu. "Horren inguruan Nafarroako Gobernuarekin bi bilera izan ditugu finantziarioa lotzeko, eta beste kontu batzuen-gatik gaia geldirik dugu. Baina Toki Azpiegitura Planean sartu dugu", azaldu du alkateak.

Azkenik, herri baratzen lurra udalaren izenean daude. Haiek egiteko proiektua lastailean lantzen hasiko dira 2023an martxan jartzeko.

## Bakaikuko denda lastailaren 5ean zabalduko dute

Bakaikuarrok herri kooperatibak Herriko Denda lastailaren 5ean, asteazkenarekin, zabalduko du. Herriko merkataritza gunere berraren mustutzea, berriz, bi egun pasata, ostiralean, egingen dute. Kooperatibako bazkide bakoitzak 60 euro jarriko ditu. Gainera, larunbatetik aurrera guztiek bazkide-tza dokumentua bete eta sinatu beharko dute ere.



Dagoeneko 133 bazkide dira. ARTXIBOA

# Eskolatik kanpo ere euskara garrantzitsua

Ikastetxetik kanpo haurrek ematen duten tarte zabal horretarako 10 aholku praktiko ematen dituen dekalogoia ondu dute Nafarroako Euskara Zerbitzuek, Sakanakoa barne. Izan ere, haurrek eskolatik kanpo denboraren %85 ematen dute

### SAKANA

Gero eta koxkorragoak diren haurren bizitzan aisialdiak gero eta toki handiagoa hartzen doa: eskolaz kanpoko jarduerak, lagunarteko harremanak eta kultur kontsumoa areagotzea. Horregatik, "zinez da beharrezkoa gurasoek aisialdiari duen garrantzia ematea. Izan ere, denbora horretan haurrak ongi pasatzeaz gainera, bere sozializazio eremuak zabalduko eta bere nortasuna eraikitzen lagunduko dioten bizipen berriak bereganatuko ditu", nabarmendu dute Sakanako Mankomunitateko euskara teknikariek. Azpimarratu dutenez, "aisialdiak haurren bizitza aberastuko du, baita euskara ikasteko eta erabiltzeko prozesua ere. Izan ere, hizkuntza ez da eskolan bakarrik ikasten, bizitzan ere ikasten da".

Azaldu dutenez, "euskara ikasteko ikastetxeak funtsezkoa izaten jarraituko du, baina umeak han urteko esna orduen %15

Informazioa: [www.eranafarroa.eus](http://www.eranafarroa.eus).

baizik ez daude. Gainontzeko %85ean arreta jarri behar da". Haurrak eskolaz kanpo dauden tartean gurasoen egitekoa "giltzarri" dela nabarmendu eta galdetu dute: "ba al du euskarak presentzia aski zure seme-alaben

bizitzetan, lagunartean, etxean, pantailetan, eskola orduz kanpoko jardueretan eta abarretan?"

Horregatik, erabakiak hartzeko unean hizkuntzaren faktorea kontuan hartzeko gonbidapena egin eta aholku dekalogoia sortu dute: haurrek beraien gogoko jarduerak euskaraz egitea; zenbat eta jarduera gehiago euskaraz hobe; haurren gogo jardueraren bat euskaraz ez badago euskaraz antolatzeke saiakera egin; parke eta plazetan euskararen presentzia izan dezala; haurrak erdaraz ari direnean ezer esan baino elkarrizketan euskaraz sartu; guraso euskaldunek haurrekin batera euskaraz jolasteko kantu, aho korapilo eta besteak esan edo kantatu; etxean hizkuntzen erabilera adostu euskararen erabilerrari ahalik eta toki gehien emateko; etxean telebista, irratia, egutegia, erosketen zerrenda... euskaraz izan daitezela eta gauza bera pantailean edota liburuarekin.



Jendea eta Iskidiren ardiak ekoizleen postu artean. UTZITAKOA

## Elikadura burujabetza aldarrikatzeko azoka

Arakil eta Irurtzongo Bertako Ganadu Azoka ospatu zen atzo. Bederatzigarren aldiz antolatu zuten

### IRURTZUN

Arakil eta Irurtzongo Bertako Ganadu Azoka antolatzen dutenek argi dute: "herria egiten duen elikadura eta nekazaritza eredu nahi eta behar ditugu, giza tainako etxaldeak, bideragarrak, klima aldaketaren aurrean inpaktu eza bilatu beharrean inpaktu positiboa egiten dutenak, ingurumenarekin bat eginez eta abereen ongizatean oinarrituz elikagai justu eta osasuntsuak eskaintzen dizkiguna". Horregatik, Irurtzunek atzo hartu zuten azokan agroekologiko eran lan egiten duten 15 nekazari eta abeltzainek beraien produktuak zuzenean saldu zituzten.

Hamaika artzainek beren gaztak herri dastaketa eta txapelketa aurkeztu zituzten. Sakana Garapen Agentziaren turismo informazio mahaian txartela erosi zuten herritar guztiek dastatu eta epaitu ahal izan zituzten

gaztak. Honakoa izan zen epaia: 1. saria Arruazuko Albi gaztandegiarendako, 2. saria Iragiko Atekoa gaztandegiarendako eta 3. saria Unanuko Balda-Artola gaztandegiarendako.

Gainera, Arbaso elkarteko artisauen dozena bat salmahai izan ziren ere. Guztia plazako frontoian jarri zen bertako ganadu arrazen erakusketarekin osatuz. Aldamenean, Vanesa Ugartek zaldiak era naturalean gobernatzeko modua erakutsi zuen. Erakustaldirako ezagutzen ez zuten Auritz arrazako 900 kiloko zaldia jarri zioten. Haren konfiantza lortu eta zaldiaren kontrako inolako jarrerarik gabe, haren gainean ibiltzen bukatu zuen.

Bestalde, Iskidik bere artalde berezia atera zuen. Pikuxar euskal txokoan Ainara Ieregi, Mikel Lasarte eta Peio Ardaiz bertolariak bertsotan izan ziren, eta Dorai ahizpek trikitixekin.

# Erakundeen ongi etorria altsasuar berriei

Altsasuko Udalak azken bi urteetan herrira etorritako altsasuar berriei harrera egin eta ongi etorria emateko ekitaldia egin zen igande eguerdian. Sakanako Mankomunitateko Euskara eta Anitzartean zerbitzuek ere parte hartu zuten harreran

### ALTSASU

Erraldoiek altsasuar berriei eskainitako dantzarekin despeditu zen haiei ongi etorria egiteko antolatutako ekitaldia. Altsasuko festetako azken egunean, domeka eguerdian, hartu zuen ekitaldia Zumalakarregi plazak. Altsasuar berriei harrera egin eta ongi etorria emateko udaleko eta Sakanako Mankomunitateko ordezkariak izan ziren presente. Javier Ollo Martinez alkatea arduratu zen "hainbat baldintzengatik eta arrazoiengatik bizimodu berri baten bila" altsasuar berri direnei ongi etorria emateaz. Ollok gogorarazi zuen "historikoki Altsasuk migrazio asko erakarri" duela, "harrera egiten dakien herri bat gara. Eta gaur egun ere egiten ari gara". Burunda mendebaldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetako koordinatzaile Arantxa Erbiti Belokik jakinarazi zuen diziplina anitzetako langileek lan egiten dutela. Eta altsasuar berriei, behar izanez gero, laguntzeko daudela azaldu zien. Horretarako, lehenik, hitzordua eskatu behar dela eta, ondoren, hitzorduan aurrez aurre ariko zirela azaldu zuen.

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikari Izaskun Errazkin Beltzak al-



Altsasuar berriak erakundeetako ordezkarien hitzak entzuten. UTZITAKOA

tsasuar berriei azaldu zien bi hizkuntza ofizial daudela, baina historian barna izandako hainbat gertaerengatik euskara "desorekatuta" dagoela. Zerbitzuak euskararen presentzia sustatzen lan egiten duela azaldu zuen. Euskara "aukerak" ematen dituen hizkuntza azpimarratu eta altsasuar berriei euskarara gerturatzeko proposatu zien: haiek edo semea-alabak euskara ikastera animatu zituen. "Euskara topagunea baita" eta seme-alabak Dereduan matrikulatzera gonbidatu zituen,

"hala herriko beste haurrekin elkarbiziko dira".

Azkenik, Mank-eko Anitzartean kulturarteko teknikaria Begoña Zestau Baraibarrek jakinarazi zuenez, Zumalakarregi plazan egiten ari zen Munduko Arrozak ekimena herritarrek proposatuta egiten hasi zen. "Beraz, bakarraren batek jardueraren bat antolatu nahi baduzue, zerbitzuarekin harremanetan jarri eta elkarrekin aztertuko dugu zer egin". Horrekin batera, azaldu zien Sakana Harrera Harana elkarte ere badagoela.

## Sarek mobilizazio eta jaialdian parte hartzera deitu du

Presoen urrunketaren akabera eta etxeratzeko bidearen hasiera islatu nahi du lastailaren 8an

### SAKANA

Dagoeneko ibarreko euskal preso guztiak Hego Euskal Herriko espetxeetan daude. Hiru hamar-kada iraun duen urruntzearen akabera ospatzeko aldarrikapena eta festa uztartuko ditu Sarek

Donostian lastailaren 8rako antolatu duen mobilizazio eta jaialdiarekin. Hitzorduak *Etxe-rako bidea gertu* leloa du, presoen geografia hurbiltasunagatik eta jendartea "gertu edo prest dagoelako bigarren faseari ekiteko:

presoen etxerako bidea gauzatu ahal izatea".

Presoak Euskal Herriratzea aldarrikatzeko Sarek garatu duen Izan bidea dinamikaren akabera izanen da ere. 11:00etan, Bulebarrean, azken km-ak ibiltzeko aukera izanen dute parte hartzaileek ordu batez. Hura despedituta Pio XIItik manifestazioa abiatuko da, Illunben despedituko dena. Han hasiko da festa. Sarreren eta autobusen berri [www.sare.eus](http://www.sare.eus) webgunean eskuratu daiteke.

## Munduko Arroz arrakastatsiak

Seigarren aldiz antolatu zen Munduko Arrozak Altsasun. Zumalakarregi plazan jende emari handia izan zen goiz osoan, hainbat jatorritako altsasuarrak harremanetan jarri. Bestalde, arrozaren dastaketarako platerak euro batean kobratzeak ez zuten inor atzera bota. 50 bat parte hartzaileek elkarrekin bazkaldu zuten.



# FESTAKI

## EKAI

### FESTAK

#### IRAILAK 23 Ostirala

21:00 Txistorra jana, elkartean.

#### IRAILAK 24 Larunbata

14:30 Paella jana, elkartean.  
16:30 Mus txapelketa.  
20:00 Herri afaria, elkartean.  
00:30-04:00 Dantzaldia DJ-ren musikarekin.

#### IRAILAK 25 Igandea

11:45 Meza.  
12:45 Otamena, eliz atarian.  
18:00 Mariatxi bikotea.  
19:30 Txokolate jana.

## EGIARRETA

### FESTAK

#### IRAILAK 23 Ostirala

15:00 Herri bazkaria.  
16:00 Bazkalondoa Miguel akordeolariarekin.  
17:30 Erronda Miguel akordeolariarekin.  
Puzgarriak eta buruhandiak.  
18:00 Festen hasierako etxajua.  
20:00 Modestorekin dantzaldia.  
21:30 Zezensuzkoa.  
21:45 Bingoa.  
22:00 Herri afaria.  
00:00 Modestorekin dantzaldia.

#### IRAILAK 24 Larunbata

11:00 Jokoak, puzgarriak eta buruhandiak.  
13:00-15:00 Otamena eta paella lehiaketa.  
17:00 Puzgarriak eta buruhandiak.  
Mus eta briska lehiaketa.  
18:00 Txokolatada.  
19:00 Txapela jaurtiketa.  
20:00 GazteMusic Dja.  
21:45 Bingoa.  
22:00 Gazte afaria.  
00:00 GazteMusic DJ.

#### IRAILAK 25 Igandea

11:00 Meza.  
12:00 Otamena eta herriko helduei omenaldia.  
12:30 Bermuta.  
16:30 Plater tiroketa.  
18:00 Dabitxi Zirkoa.  
19:00 Tortila eta txistorra dastamena.  
19:15 Bingoa.  
20:00 Los Tajudos del Norte mariatxien emanaldia.  
21:30 Hau pena nik!

## ALTSASU

### LA ENGINAREN KULTUR ASTEA

#### IRAILAK 23 Ostirala

20:00 Maria Pinto Extremadurako idazlearen pregoia.  
20:30 Brotes de Encina dantza taldeko haurren emanaldia.  
21:00 Merendua.

#### IRAILAK 24 Larunbata

**BAZKIDEAREN EGUNA:**  
**ELKARTEAREN 20. URTEURRENA**  
14:30 Bazkaria.  
Bazkide beteranoei omenaldia, bazkideei zapiak banatzea eta 20. urteurrena ospatzea.  
19:30 Musika.

#### IRAILAK 25 Igandea

Egun guztian zehar, erakusketa eta bideoa, eta otamena.

## UHARTE ARAKIL

### SAN MIGELAK

#### IRAILAK 29 Osteguna

12:00 Meza, elizan.  
16:30 Frontenis finala.  
18:00 Suziria!  
Uharteko Mugimendu feministak festei hasiera emango die konpart sarekin lagunduta.  
Auzatea.  
20:00-22:00 Dantzaldia Trikidantz taldearen eskutik.  
22:00 Zezensuzkoa.  
24:00-02:00 Dantzaldia Muxutruk taldearekin.

#### IRAILAK 30 Ostirala

12:00 Erraldoiak eta buruhandiak.  
13:00 Auzatea.  
14:30 Jubilatuen bazkaria.  
17:30 Herri kirolen erakustaldia.  
18:30 Buruhandiak.  
20:00 Play Back.  
Auzatea.  
22:00 Zezensuzkoa.  
24:00-04:00 Dantzaldia Muxutruk taldearekin.

## OLAZTI

### SAN MIGELAK

#### IRAILAK 29 Osteguna

19:00 Txupinazoa, kultur etxean.  
Erraldoiak eta buruhandiak.  
19:30-21:00 Musika Ken Bat taldearekin, San Migel plazan.  
20:00 Bonba japoniarrak, Intsumisioaren plazan.  
Banaketa, San Migel plazan.  
21:00 Zezensuzkoa, San Migel plazan.  
21:30 Afaria, gaztetxean.  
Maisuenea gaztetxeak antolatuta.  
22:30 Karaokea, gaztetxean.  
Maisuenea gaztetxeak antolatuta.



**ALTSASU** Urtero bezala, altsasuarrek gauero Larrain dantza eta Altsasuko zortzikoa dantzatu dute Foru plazan.



**ERGOIENA** Ibarreko nortasuna indartzeko asmoz, IV. Ergoienako Eguna ospatu zen Lizarragan larunbatean. Goizean Ergoienako Bira jokatu zen. Egurdiko bazkarian 60 bat ergoendar elkartu ziren.

#### IRAILAK 30 Ostirala

17:00-19:00 Sormen tailerra: buztin tornua, buztin lana, teila pintura, San Migel plazan.  
Euria egiten badu eskolako frontoian.  
19:30 Afizionatu mailako pilota partidak, udal frontoian.  
Mendiburu – Ibarrola / Oskoz – Zabaleta  
Olaetxea – Lazkoz / Nazabal - Apezetxea  
20:00 Bonba japoniarrak, Intsumisioaren plazan. Kakahuete, gazta eta ardo banaketa, San Migel plazan.  
20:00-22:00 Elektrokela Elektrotxaranga.  
20:30 Pintxopotea, gaztetxea.  
Maisuenea gaztetxeak antolatuta.  
23:30 Kontzertuak: Tirokatuak, Galtza gorriak eta Haizkan taldeak, gaztetxean.  
Maisuenea gaztetxeak antolatuta.

**egunean behin?**  
Cede/Syntax



## DENBORALDI BERRIA

Sartu Guaixeren Sakanako taldean:

# 2B2160



Eta irabazi Errigora kaxa bat!



## Iturmendiko beheko basoko bideetan konponketa lanak

Herritik beheko basora doan basoko pista nagusiak konponketa premia zuen hainbat puntutan, Aiztondoraino. Iturmendiko Udalak egin beharreko lanak zerrendatuta zituen: urarendako pasak, ezponda garbitzeak, zubi bat konpontzea, bidea nibelean jarri eta beste. Nafarroako Gobernari basoko pista konponetzeke dirulaguntza eskatu eta hura jasota, hasi dira lanak. Maugiako bide nagusiaz aparte, Aitzkibil eta Errenkurutza arteko bide tartea ere berritu da. Santi Lopezek egin ditu lanak eta haien truke 27.000 euro jaso ditu. Udalak foru gobernaren 14.000 euro inguruko dirulaguntza jaso du.

## Beste erakundeetan dituen ordezkariak aldatu ditu udalak

Udalen egitekoa ez da bere barne organoetara mugatzen. Alkatetik edo zinegotzietatik udalaren eta herriaren interesak beste erakundeetan ere ordezkatzeko dituzte, esate baterako, udalez gaindiko mankomunitateak edo partzuergoak. Udalen ordezkariak hori legegintzaldi guztietan aldatzen da, bestela ere. Geroa Baik Altsasuko udal ordezkarietza bost aldaketa egitea proposatu eta erabaki zuen abuztuaren 31n. Horrela, Altsasu, Olazti eta Ziordiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean Joseba Jokin Zelaia Oiarbideren ordezkaria Fermin Zabala Ruiperez izango da, eta Aita Barandiaran Adinekoren Egoitzako Patronatuko Batzorde Zuzentzailean Javier Ollo Martinezen ordezkaria Santiago Luceño Arias. Bestalde, Joseba Jokin Zelaia Oiarbidek Mari Carmen Viana Murga bi entitatetan ordezkariak ditu: Urbasa-Andiako Larreen Batzordean eta Baso Egiatzapen Eskatzaileen Nafar Entitatean PEFC Elkartearen.

Horretaz gain, Mari Carmen Otaegi Saez de Maturanak Altsasuko zinegotzi kargua utzi zuen. Haren tokia Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Osasun Kontseiluan Santiago Luceño Ariasek hartuko du eta azken honen ordezkaria Mari Carmen Viana Murga izango da.

## Sunsundeguik ehun autobus saltzeko eskaerak ditu

Espainia, Frantzia, Portugal eta Israelgoak dira eskaerak egin dituztenak

ALTSASU

Sunsundeguik SC7, SC5, SB3 GO eta SB3 modeloak ekoizten ditu. Jasotako eskaera zorroan denetariko eskaerak daude, baina zuzendaritza pozik dago SB3 GO modeloak izan duen harrerarekin. Ibilbide labur eta ertaineko zerbitzuetarako diseinatua, modelo hori sinpletasunean, funtzionaltasunean eta barrualdeko modularitate eta aldakortasun handian oinarritzen da. Bestetik, zuzendaritzak jakinarazi du Frantzia eta Italiako autobus azoketara joan dela. Han aipatu modelo aurkeztuko du, zenbait teknologia berritasunekin: izkinako argiak eta bereizmen handiko HD kamerak, atzerako ispiluen ordez.

Enpresak azaldu duenez, ehun autobus horien eskaerarekin bere bideragarritasun plana gauzatzeko hasi da, eta eskaera horiek "etorkizunerako planaren aurreikuspenak berresten" dutela gaineratu dute. Salmentak 8,9 milioi euroko mailegua eman dion Cofides eta Sodenaren aurrean "bultzada handia" dela nabarmendu dute zuzendaritza-tik, gaineratuz, bultzada ere badela langileei eta altsasuarrei begira ere". Lantegian 230 langile baina gehiago ari dira lanean.

## LAB sindikatu bozkatuena Hydro Extrusionen

Hydroko langileek 9 kideko enpresa batzordea berritzeko hauteskunde sindikalak egin dituzte. LABek 57 boto (tailerlean) jaso ditu eta lantegiko lehen indar bihurtu dute; 3 ordezkari izatetik 4 izatera pasa da. CCOOK 25 boto eskuratu zituen (20 bulegoetan, 5 tailerlean) eta 3 ordezkari. UGTk 26 botorekin (tailerlean) 2 ordezkari ditu.

# Adanoren aldeko erronka Uharte Arakilen

Adano, minbizia duten haurren elkartearen aldeko ekitaldia hartuko du Uharte Arakilek larunbat goizean: aizkora eta Beriain igotzea lotuko dituen kirol erronka, haurrendako puzgarriak, zumba, dantzak, pintxo solidarioak eta beste

**Maidar Betelu Ganboa** UHARTE ARAKIL Nafarroako Adano elkarteak minbizia duten haurrei eta haien senitartekoei laguntza ordainezina eskaintzen die: hasteko eta behin laguntza psikologikoa, soziala eta baita ekonomikoa ere, eta horrekin batera bestelako babesa: hezkuntzan laguntza, laguntza juridikoa, aisialdirako ekitaldiak, ekinoterapia, entitate ezberdinekin koordinazioa eta beharrezkoa duten informazio guztia. Haur batek halako gaitasun larria duela onartzea eta gaitzari aurre egitea oso gogorra izaten da familiendako, eta bide malkartsu horretan Adano bezalako elkarte alboan izatea, beharrezko laguntza emateko prest, handia da.

### Haurrendako ekitaldiak

Horregatik larunbat goizean Uharte Arakilen Adanoren aldeko kirol erronka antolatzea erabaki du kirolari talde batek, elkartearen aldeko diru bilketa egiteko. Sakanako familieek ere egoera hauek bizi dituztelako eta elkarte hauetako kideak direlako. Horrela, kirol desafio polita antolatu dute, eta goiz osoko festa. Larunbatean 10:00etan hasiko da ekitaldia, Uharte Arakilgo plazan. Adanok postua jarriko du, eta haurrendako denetariko ekitaldiak egongo dira: puzgarriak, pailazoak, tattoo-ak, aurpegi margoketa, jokoak, jostailu azoka... Mokadu bat hartu nahi dutenek gazta, txistorra, ardoa eta sagardoa dastatzeko aukera izango dute. Pintxo solidarioengatik eta bestelakoetatik jasoko den dirua, jakina, Adanorendako izango da.

### Desafioa, 11:00ak inguruan

Uharte Arakilen antolatu den kirol erronka bitxia da. Lehenik eta behin, hiru aizkolarik kanako enbor handia erdibitu behar dute. Iker Gorriti uharte arakildarra, Goizeder Beltza



Martxoan Noelia Fundazioaren alde Uharte Arakilen antolatutako kirol erronka.

## JAUREGI IZANGO DA DESAFIO OSOA EGINGO DUEN BAKARRA: KANA ERDIBITU ETA BERIAIN IGO ETA JAITSI

etxarriarra eta Arkaitz Jauregi, Altsasun bizi den La Lezeko arabarra izango dira aizkolaria. Kanak 2,5 metroko zirkunferentzia du, eta lana egiteko 20 minutu pasa behar du dituztela aurreikusten da. Lan gogorra dute, beraz, aurretik. Eta ondoren korrikalariak hasiko dira lanean.

### Spiderman ere

Iker Gorritik lana despeditzen duenean Kepa Gordo mendi korrikalariak lekukoa hartu eta Beriaingo bidea hartuko du, aurreko igandean jokaturako Uharte Arakil-Beriain Km Bertikaleko ibilbidetik San Donato ermitara igo, buelta hartu eta Uharte Arakilgo plazako helmugara jotzeko. Goizeder Beltzaren bikotea Amurrioko Abel Fernandez "Spiderman" korrikalaria izango da, Spidermanen jantzia soinean makina bat ekimen so-

lidarioetan parte hartzen duena, eta, bukatzeko, Arkaitz Jauregik ez du bikoterik izango. Kanako enborra moztu bezain pronto, enborretik jaitsi eta bera izango da Beriainera abiatuko dena. Arkaitz Jauregi da lan guztia egingo duen bakarra. Sasoiz ongi omen dabil, eta ekitaldi honetan motibazio berezia du, Adano elkarte oso gertutik ezagutzen duelako. Gainontzekoak ere gogotsu daude, eta, hortaz, lehia ederra espero da.

### Zumba, mariatxiak eta beste

Kirolariak Beriainen gora dabil-tzanean, bestelako ekitaldiek alaituko dute plaza. Arestian aipaturako ekimenez gain, Arbizuko Dantza taldearen emanaldia izango da eta 12:30ean Zumba solidarioa hasiko da. Behin korrikalariak helmugara iritsita, 13:30ak aldera Duo Mexicoren emanaldia hasiko da eta 14:00etatik aurrera Adanoko kideei aitortza egingo zaie, aurrerakua barne, eta boluntarioen dohaintzari esker prestatutako produktu loteak zozketatuko dira. Sakandarrak hurbiltzera animatu dituzte, goiz berezia izango delako.

## FUTBOL PREFERENTEA

## 2. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Amigo - Altsasu	1-0
Beriain - Lagun Artea	1-1
Etxarri Aranatz - Beti Casedano	1-1

## SAILKAPENA

## PREFERENTEN 1. MULTZOA

1	Universidad de Navarra	6
8	Altsasu	3
14	Lagun Artea	1
16	Etxarri Aranatz	1

## HURRENGO JARDUNALDIA

## OSTIRALA, IRAILAK 23

20:00 Beriain - Altsasu (Beriain)

## LARUNBATA, IRAILAK 24

16:30 Lagun Artea - Salesianos (Zelai Berri)

## IGANDEA, IRAILAK 25

17:30 Ilunberri - Etxarri (Lardin)

## Altsasuk Beriain aurkari

Amigoren kontra galdu eta gero, Lagun Artearekin bana berdintzetik datorren Beriain izango du aurkari Altsasuk. Puntuak batzen jarraitzeko aukera ederra.

## Lagun Arteak Salesianos hartuko du

Lakuntzarrek aurreko jardunaldian Beriaindik puntu bat ekartzea lortu zuten, eta markagailua mustu izanak eman dien indarrarekin hartuko dute Salesianos.

## Etxarrik Ilunberri du hitzordua

Beti Casedanoren kontra berdindu eta gero, Ilunberri arerio zorrotzaren kontra jokatu du Etxarri Aranatzek igandean Lardin futbol zelaian, puntu gehiago pilotatzeko prest.

## Emakumezkoen Altsasu, hastear

Asteburuan hasiko da Emakumezkoen Preferente Mailako 2022/2023 denboraldia. Emakumezkoen Altsasu taldeak kategorია berria mustuko du, joan zen denboraldian Emakumezkoen Lehen Maila Autonomikoan lehiatu eta gero. Ligako lehen jardunaldian Altsasuk Idioia taldea hartuko du etxean, larunbatean, hilak 24, 17:00etan Dantzalekun jokatu den partidari. Guztira hamar talde lehiatuko dira eta denboraldi ahalik eta txukunena egitea da altsasuaren helburua.

## FUTBOL ERREGIONALA

## 1. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu B - Beti Kozkor B 3-2

## SAILKAPENA

## ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1	Beti Onak B	3
4	Altsasu	3

## HURRENGO JARDUNALDIA

## LARUNBATA, IRAILAK 24

19:45 S. Ignacio - Altsasu (NUP)

## Altsasuk ongi ekin dio denboraldiari

Lekunberrikoen kontra hiru puntu lortuta, larunbatean San Ignacio du aurkari.

# 265 txirrindulari eta launa autobus eta kamioi

**TXIRRINDULARITZA** Igandean 9:00etan abiatuko da Sakanako Bizikleta Eguna, Ziorditik, Irurtzun helmuga. Mankomunitatetik autobus ordutegiak zintzo betetzeko deia egin diete izena eman duten 265 sakandarrei

## Maider Betelu Ganboa SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan dei askoko egunak izaten dira hauek. Igandean XXVIII. Bizikleta Eguna izango da, Sakana Bizikletaz Ezagutzen Ielopezan Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak zenbait administrazioen babesarekin eta Sakanako txirrindulari taldeen laguntzarekin –Barranka Txirrindularitza Taldea eta Burunda eta Aralar Txirrindularitza klubak– antolatutakoa.

Aurten, antolakuntzan, Sakana Eskualde Aktiboa Zerbitzuko orientatzaile Dani Echavarrrik hartu du Mank-eko Kirol Zerbitzuko teknikari Amaia Gerrikagoitiaren tokia, "eta harriritu geratu naiz Bizikleta Egunaren atzean dagoen lanaz. Baimenak eskatu, anbulantzia lotu, laguntzaileekin bilerak izan, izena ematea, autobusak eta kamioiak lotu, mekanikaria... antolaketa lan handia dago atzetik, guztia behar bezala ateratzeko".



Sakanako Bizikleta Egunak antolaketa lan handia du atzetik.

Guztira 265 sakandarrek eman dute izena iganderako. Aurten Ziorditik abiatuko da Sakanako Bizikleta Eguna, 9:00etan, eta Lakuntzan askarirako geldialdia egin ondoren, Irurtzunera iritsiko da, ordu batak inguruan.

Horrenbeste partaide mugitzeko lau autobus eta lau kamioi behar izango dituzte. Ido honetan, parte hartzaileei dei garrantzitsua egin die Echavarrrik: autobusa hartzeko herri bakoitzeko geltokietan garaiz egotea.

## Lau autobusen ordutegia

Esan bezala, lau autobus eta kamioi izango dira guztira. Lehenak 7:45ean abiatuko dira Irurtzundik, eta Etxeberrin, Zuhatzun, Uhar-te Arakilen eta Lakuntzan egingo du geldialdia. "Lakuntzako kasuan, izena eman dutenen kopuru erdia lehen autobusean joango da, eta beste erdia bigarren autobusean". Horrela, bigarren autobusa eta kamioia 8:00etan aterako dira Lakuntzatik, eta Arbizun izena eman dutenekin beteko dira. Hirugarren autobusa eta kamioia Etxarri Aranatztik 8:00etan aterako da baita ere, eta Bakaikutik pasako dira. Azkenik, laugarren autobusa eta kamioia Urdaindik 8:15ean abiatuko dira, Altsasun eta Olaztin sartzeko, Ziordia helmuga. Bueltarako autobusak Irurtzundik aterako dira, eta herrien izenak jarrita izango dituzte.

## Gozatzeko deia

Barranka Txirrindularitza Taldeko Alberto Ocañak gidatuko du ibilbidea. Iganderako bizikleta dohitzea eskatu die partaideei. Aurten Joxi Lazkoz etxarriarrak egingo ditu mekanikari lanak, eta Burundakoei dagokie ibilbidea zabalitzen duen autoa gidatzea. Eguraldiagatik kezka zuten antolatzaileek, baina badirudi iragarpenak aldatzen ari direla eta eguraldi hobea iragartzen dutela. Beraz, bizikletan Sakanako ibilbideaz gozatzeko gonbitea egin dute antolatzaileek.



UTZITAKOIA

## Otadiko Kristo Deuna Torneoko saridunak

**PILOTA** Altsasuko festen azken egunean erabaki ziren Altsasu Kirol Elkarteak eta Pilotajaukuk antolatutako 51. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoko finalak, festa giro ederrez jantzita zegoen Burunda pilotalekuan.

Lehen finala maila mistokoa izan zen. Oier Mitxelena altsasuarrak eta Aizane Ibarrolak Urko Lanza altsasuarra eta Amaia Arrastia izan zituzten

aurkari, eta lehenak gailendu ziren, 12 eta 22, hasieratik aurrera hartu eta garaipen sendoa lortuta. Eliteen mailako finalean paretsu hasi ziren Fernandez-Erle eta Egiguren-Lizeaga, baina zortzinako berdinketaren ondoren Egigurenek eta Lizeagak aurrea hartu eta gipuzkoarrek nagusitasunez irabazi zuten, 14 eta 22.

# CBASK eta Agurain, motorrak berotzen

**SASKIBALOIA** Denboraldia prestatzeko lagunarteko egun osoko jardunaldia antolatuta dute CBASK Altsasu Saskibaloia Taldeak eta Agurain Saskibaloia klubak. Lau kategoriatan ezberdinetan lehiatuko dira bi klubak

## Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Urrian hasiko da saskibaloiko 2022/2023 denboraldia, baina ikasturte berriari behar bezala ekiteko saskibaloia klubak buru belarri daude entrenatzen. Liga hasi baino lehen lagunarteko partidak jokatzea ohikoa da, baina Altsasuko CBASK Saskibaloia taldeak eta Agurain Saskibaloia klubak egun osoko jardunaldia antolatuta dute larunbatean, hilak 24, Zelandi kiroldegian.

## Lau partidak

Larunbatean guztira lau partida jokatuko dituzte elkarren kontra, lau kategoriatan: kadeteak (CBASK Kadeteak vs Agurain kadeteak, 10:00etan); nesken Senior Maila (CBASK Xabi Gorriz Tattoos senior neskak vs Agurain senior neskak, 12:00etan); Maila Autonomikoa (CBASK Ifuel senior mutilak vs Agurain senior mutilak, 16:00etan) eta, azkenik, Autonomien Artekak (CBASK Narum senior mutilak vs Agurain senior mutilak,



Larunbatean itxura ederra izango du Zelandik. ARTXIBOA

18:00etan). Saskibaloiaz gozatzeko aukera ederra izango da Zelandin.

## Nesken seniorren taldea

Aspaldiko partez aurten nesken senior mailako taldea du CBASK-ek, berri oso pozgarria. Taldea

Iosu Mendiola zuzentzen du, joan zen denboraldira arte Autonomien Artekak CBASK taldeko entrenatzailea zenak. Denboraldiari ekiteko prest daudek, eta Zelandin izango duten testa oso baliagarria izango da.

## Etxeberria, aurrera begira

### TXIRRINDULARITZA

Josu Etxeberria Azpilikuetak Luxemburgeko Tourra bukatzea lortu zuen lesio ondoko itzuleran. "Pozik nago proba bukatu izanagatik, baina are poziago lesioaren etapa beltza gainditzeagatik. Lesioa izan baino lehen bezala sentitu naiz, eta, hortaz, aurrera begiratzeko garaia da" azaldu du. Aurki Italiako Klasikoetan arituko da.



©PRESSPHOTO.RTL.LU

**Maider Betelu Ganboa** ETXARRIARANATZ Egunotan Europako Triatloi Multikirol Txapelketak jokatzen ari dira Bilbon. Tartean, larunbatean Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza Begiristain etxarriarra Europako txapeliduna izan zen 55 eta 59 adin tarteko Europako Duatloi Txapelketan. Bere taldekide Peio Bergara Garcia altsasuarra 65-69 adin tarteko mailan lehiatu zen eta podiumera igotzear izan zen, laugarren sailkatu baitzen.

**Adin arteko Europako Duatloi txapeliduna. Izendapen handia da hori.** Bai (kar kar). Kosta egin da. 2020an Huelvan jokatutako Europako Txapelketan txapelidunordea izan nintzen, eta aurten txapeliduna. Oso kontentu nago. **Zein distantziako proba zen?**

Sprint distantziakoa. Hau da, 5 km korrika, 20 km bizikletan eta 2,5 km korrika. Distantzia hau gustuko dut. Motza da, ordu bat topera ibiltzeko modukoa, eta entrenatzeko ez da horrenbeste denbora behar. Distantzia luzeagoak ere egin izan ditut, baina horretarako askoz ere gehiago entrenatu behar da. Gainera, proba luzeak bizikleta sektorean *No Drafting* izaten dira, hau da, ezin zara aurreko gupilera lotuta joan. Sprintean, aldiz, taldean joan zaitezke.

## Korrika edo bizikletan. Nola hasi zinen?

Betidanik gustatu izan zait kirola, baina hasieran batez ere mendian ibiltzen nintzen, eta eskian. Gero haurrak jaio ziren, ez nuen horrenbeste denborarik eta korrika hasi nintzen, eta lasterketa herrikoietan parte hartzen. Baina belaunean oinazeekin hasi nintzen, bizikletan ibiltzea ona zela esan zidaten, eta hasi nintzen.

## Nola egin zenuen duatloirako saltoa?

Sakanan Arbizuko Duatloia egin da; beranduago hasi zen Altsasuko. Azkenean behin Arbizuko Duatloian ateratzera animatu nintzen. Han Sakanako Triatloi Taldekoekin harremana egin nuen eta Mikel Lakuntzarekin hasi nintzen kirol hau probatzen. Urte batean duatloi bat egin nuen, hurrengoan bi eta gutxika mundu honetan sartu nintzen. Izan ere oso giro polita egoten da: jendea ezagutzen duzu, taldekideekin harreman ona duzu... eta oso gustura.

**Hurrengo saltoa duatloitik triatloira pasatzea izango zen, aurrekoiei gigeriketa gehituz.**

Triatloian ere aritzen naiz. Hala ere, igeriketan nahiko kaxkarra naiz. Urtero hiruzpalau triatloi egiten ditut. Aurten maiatzean Tarragonako proba bat egin nuen. Distantzia luzeagoa zen eta gustura ibili nintzen, baina lesio bat izan nuen eta nerbio bat ukituta dudanez, igeriketan gaizki ibiltzen naiz. Horregatik aurten pixka bat aparte utzi dut.

**Zure kategorian aurten Espainiako Duatloi txapeliduna izan zara, Avilésen, eta larunbatean Europako Txapelketa irabazi zenuen Bilbon. Avilésen euria, haizea eta hotza zirela gailendu zinen, eta Bilbon beroarekin.**

Bai, eguraldi guztiz ezberdina zen. Niri, egia esan, berdin zait. Hemen eguraldi txarrarekin aritzera ohituta gaude. Ia urtero Arbizuko eta Altsasuko Duatloian eguraldi kaxkarra tokatzen zait, eta kanpotarrek esaten digute: zein eguraldi txarra! Baina gu, ohituta, beste jarrera batekin ateratzen gara. Espainian euria egiten badu askotan ez dira entrenatzera ere ateratzen; guk ez dugu beste aukerarik.

**Aurten asko beroaz kexatu dira, egin duen berotzarrarekin entrenatzea oso gogorra izan delako.**

Bilbon, beroketak egiten ari ginen, horretaz aritu ginen. Valentzia, Madril eta ingurukoek esaten zuten beste urte batean Europako txapelketa hain berandu jokatzen bada, irailan, ezin dela udan bero horrekin behar bezala entrenatu. Egia da, sarritan gogorik gabe, ezinean aritu gara entrenatzen udan. Oso gaizki ibili gara, gogorra egin da.

**Larunbateko Europako 55-59 urte arteko Duatloi Txapelketa irabaztea espero al zenuen?**

Partaideak, gutxi gorabehera, ezagutzen gara. Ingalaterratik jende asko etortzen da, duatloirako kultura oso handia baitute. Baita ere austriarrak, portugaldarrak –pare bat oso onak daude... Normalean nire adin tartean lehen bosten artean egoten naiz, baina probaren egunean bertan ikusten da horietako nor dagoen indartsuago. Azkeneko aldian lauzpabost geundela, bizikletako katea atera zitzaidan, atzean geratu nintzen eta ez nuen irabazteko aukerarik izan. Ez dakizu zer gertatuko den.

## Nola joan zen Bilboko duatloia?

Hiru kategoriatan ezberdinetakoak batera atera ginen, eta gu helduenak ginen. Gazteenak indartsu ateratzen direnez, garrantzi-



# "Gorputzak eutsi bitartean lasterketetan jarraituko dut"

**JUAN LUIS MAIZA BEGIRISTAIN** 55-59 ADIN ARTEKO EUROPAKO DUATLOI TXAPELDUNA  
**DUATLOIA** Sakana Triatloi Taldeko etxarriarrak Europako domina lortu du eta apirilean Mundukoa lortu nahiko luke, Ibizan



Juan Luis Maiza, eskuinean, alboan Peio Bergara duela. SAKANA TRIATLOI TALDEA

tsua da euren taldeetan sartzea, horrela azkarrago joango zare-lako. Bilboko irteera oso azkarra izan zen, eta ni gazteen talde bati segika ibili nintzen. Azken 2 kilometroetan erritmoa jaitsi zuten eta harrapatu egin nien. Bizikleta hartzerakoan trantsizio ona egin nuen, eta lehendabizikoa atera nintzen. Horrela, nire aurretik zioan gazteen talde bat harrapatu eta eurekin joan nintzen. Atzetik nire kategoriakoa den Francisco Dominguez madrildarrak harrapatu gintuen. Azken trantsizioa, bizikleta uztekoa, oso azkarra egin nuen. 15 segundoren aldea atera nion Dominguezi, eta distantzia hori mantentzen saiatu nintzen, helmugara bakarrik helduz (1:09:00). 20 segundora sartu zen Dominguez, eta atzetik Christian Siedlitzki austriarra (1:09:29) eta Lee Barker ingelesa (1:09:32). Azken bi hauek korrika gu baina hobeak ziren, baina bizikletan ateratako aldeagatik nagusitu ginen.

## **Poz-pozik iritsiko zinen.**

Bai, itota, azken unera arte nuen guztia eman nuelako. Behin, Avilesen, Munduko Txapelketa jokatzeko ari nintzela, azkeneko kilometroan atzetik zetorren ingeles batek gainditu ninduen, eta bigarren izan nintzen. Hortaz, Bilbon, bukaerara arte ez nintzen lasaitu.

**Hortaz munduko txapelkunordea zara. Agian hori da hurrengo helburua, Mundialagatik borrokatzea?**

2021eko Mundialak Amberesen ziren jokatzekoak, baina pandemiagatik bertan behera geratu ziren. Aurtengo Mundialak Canadian izan ziren, baina lan kon-tuengatik ezinezkoa. Datorren urtekoak Ibizan izanen dira, apirilean. Gabonetan zehazten dut hurrengo urteko egutegia, eta Ibizan egoten saiatuko gara, sailkatu garelako eta sekulako giro ona egoten delako Munduko Txapelketetan. Toki askotatik dator jendea: Ipar Amerika, Australia, Canada, Nueva Zelanda, Europa... Apirila data ona da, duatloi denboraldia martxoan hasten delako eta sasoi batean iritsiko ginatkeelako. Uda guztia lehiatu gabe egon ondoren, orain ez dugu lehiaketaren txispa hori.

## **Peio Bergara 65-69 urteko adinartean Europako laugarren izan zen. Meritu handia du berak ere.**

Bai, Peio aurten hasi da duatloi proba gehiagotan parte hartzen, orain arte Sakanakoetan aritzen baitzen. Gogotsu entrenatu du, oso ongi prestatu da, eta horra emaitza. Laugarren izan zen (1:19:12), Alastair Stewart txapel-dun ingelesetik (1:17:31) minutu pasara. Gustura hartu du. Bere adineko jende gutxi dago, elkar ezagutzen dira eta gustura dabil-tza, giro ederran.

## **Txapelketa. Zein sari eman zizuten? Kristalezko domina bat, urre kolorez margotutakoa.**

## **Trofeo asko izango dituzu.**

Bai, dezente, baita seme-alabenak ere. Gehienak kutxa batean gordeta daude, baina pixka bat bereziak direnak egongelan ditut: beteranoen mailako Euskal Herriko Zirkuitua irabazi nuenekoa, La Palma irlan Espainiako Mendi Lasterketen Txapelketan nire mailan irabazi nuena, eta Europako eta Munduko dominak.

## **57 urte egingo dituzu, eta lehiari jarraitzeko prest.**

Gorputzak eutsi bitartean hor egongo naiz. Ez da kirola utzi behar, bestela gorputzak zer egin behar duen ahazten du. Bestalde, ni oso lehiakorra naiz. Uste dut Etxarri Aranatzeko ere gipuzkoar gene hori dugula, kaniketara jokatzeko ere pikatu egiten garela (kar, kar...). Igandean lasterke-

## **"EUROPAKO 55-59 ADIN ARTEKO DUATLOI TXAPELKETA LORTZEA KOSTA EGIN DA. POZ HANDIA DA"**

tatxo batean parte hartzea eta gero poteora ateratzea plan ederra da, eta horretarako entrena-tu beharra dago.

## **Etxarriko ferietako Mendira Joan Etxarriko ariko zara?**

Lehen aritzen nintzen, baina orain ezin dut aldapan behera ibili, belaunarekin asko sufritzen dudalako. Horregatik erabaki nuen mendi lasterketetan ez aritzea. Orain atletismo lasterketak hasiko dira, eta gustura. Behobian behin lesio bat izan nuen. Tibia eta peronea apurtu nituen, eta ordutik proba luzeak ez ditut egiten. Laburrak bai, 10 km ingurukoetan, pozik.

## **Gorputzari entzun behar zaio.**

Aktibo segitzen badugu, lasterketa bat edo beste egiten, ez gauda gaizki. Hori da garrantzitsue-na, eta entrenatzera ateratzera bulkatzen didana. Nik lasterketen motibazioa behar dut, bestela eguraldi txarrenekin ez nintzen entrenatzera aterako.

## **SAKANA TRIATLOI TALDEA**

## **Sakana Triatloi Taldeko juntako kidea zara. Zein osasun du klubak?**

Sergio Garcia de Eulate presidente da eta ni presidenteordea eta kontuak eramaten dituen. Gutxi gara, baina onak (kar, kar...). Urte batzuk egon dira, toki guztietan, jende dezente elkartzen ginela, baina badaramatzagu bi urte gure kirolak eta baita atletismo probak ere jaisten ari direla. Orain mendi lasterketen sukarra dago. Mendi proba batean agian 300 pertsona bildu ahal dira, eta guk 100 pertsona elkartzeko nahikoa lan dugu. Jendeak kirol asko egiten du, baina bere kontura, probetara joan gabe.

## **Moda kontua izan daiteke?**

Agian gurea ere moda bat izan zen, bere garaian jende asko hasi baitzen duatloian.

## **Udan Mank-ek triatloi campusa antolatzen du eta hori ere lagungarria izango da gazteak animatzeko.**

Gure asmoa zen triatloi eskola sortzea, baina gaztetxoek gutxieneko kopuru bat behar genuen, eta ez genuen lortu. Atletismoa orain loraldian dago, eta bertara doazen gazte askok bere kontura lantzen dute bizikleta eta igeriketa, eta udan Mank-eko triatloi campusera animatzen dira. Bestalde, Sakana Triatloi Taldeak triatloi eta duatloi probak antolatzen ditugu haurrendako. Zaila da futbola eta bestelako kirolekin lehiatzea, baina badago gurera animatzen denik.



Maria Riscok Berriainen gora irribarre egiteko tartea hartu zuen.



Maite Beregaña eta Jose Luis Beraza, lehen uharte arakildarren podiumean.

# Beriaingo sorpresak

**MENDI LASTERKETAK** Loic Robert eta Oihana Azkorbebeitia gailendu ziren Uharte Arakil-Beriain Km Bertikalean eta joan zen urteko irabazleen aurretik. Sakandarretan Aritz Munarriz eta Maite Beregaña izan ziren finenak giro paregabea izan zuen proban

**Maidar Betelu Ganboa** UHARTE ARAKIL Fresko eta eguzkitsu. Primerako eguraldiarekin jokatu zen XIII. Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala. Aralar Mendi klubak ezarritako 200 partaideen muga beteta, korrikalariak gogotsu ekin zioten mendi lasterketak dituen 5 km eta 1.023 metroko desnibel positiboa betetzeko erronkari. Binaka atera ziren, 30 segundoko tartearrekin, Beriaineko maldatan bildu ziren zaleen txaloak jasotzeko prest. Izan ere, sekulako giroa izan zen ibilbide osoan, azken malda gorretan bereziki.

## Robert, ziztu bizian

Joan zen urteko irabazleak, Mikel Beunza eta Maria Ordoñez, faboritoen artean zeuden. Ordoñez, gainera, probaren errekorra (47:54, Ainhoa Sanz, 2019) gainditzeaz egon zen iaz, eta

aurten helburu horrekin etorriko zela argi zegoen. Baina beti sorpresaren bat egoten dela aipatu zuen Aralar Mendi klubeko Juanjo Goikoetxeak eta aurten ere hala izan zen. Albiko Didier Zago korrikalari handiaren apopiloa den Loic Robert frantziarra izan baitzen probako izarra. Canfrancetik Pirinioak gurutzatu eta beste aldean dagoen Oloron Sainte Marie-ko korrikalaria ziztu bizian atera zen hasieratik, eta bere atzetik abiatu ziren faboritoak, Beunza eta Macias artean, nola erantzungo zuten jakin gabe, zaleek harri-

**"ERREFERENTZIARIK GABE JOAN NAIZ, NIRERA. GUSTURA IBILI NAIZ" O. AZKORBEBEITIA**

tuta segitzen zuten bere igoera. Azkenean berak egin zuen denborarik onena (40:21). Alkotzeko Mikel Beunzari minutu pasa atera zion (41:53) eta Ander Amnarriz hernaniarrari hiru minutu pasa (43:27). 2015ean Aitor Osak ezarritako errekorra (39:54) gainditzeko 27 segundora geratu zen Robert, bere sasoi eta martxa ikusita, datorren edizioetara begira planteatu dezakeen helburua. Sakandarrei dagokienez, Aritz Munarriz etxarriarra 14. iritsi zen helmugara, lehen sakandarra (46:44).

## Egindakoarekin gustura

Didier Zago Loic Robert bezain kontentu zegoen Uharte Arakilgo plazako sari ematean. Kilometro bertikalean espezialista hutsa den frantziarrak -Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala hirutan irabazi du- aurpegian

sartzen ez zitzaion irribarrearen jantzia. Pozik zegoen bere ikaslearengatik, hark bere irakaspenak txintxo jarraitu zituelako. Robertek, oso kontentu, ez zuen txapela kendu eta Zagoren lana eskertu zuen.

Aritz Munarriz lehen sakandarra ere kontentu zegoen egindako lanarengatik. Km bertikaleko bere errekorra 46:10-ekoa da eta aurten 46:44eko denbora egin du. "Urte hau lasaiago hartu dut, ez naiz horrenbeste probetan aritu, baina bertako lasterketetan aritzea gustuko dut. Denborari dagokienez, oso kontentu nago. Urte asko dira Km Bertikalean, eta denborari eustea kontentu egoteko modukoa da. Hori da garrantzitsua" nabarmendu zuen.

Iritzi berekoa zen Munarrizekin solasean zegoen Jose Javier Beregaña uharte arakildarra (55:04). "Mailari eta denborari eusten diogu, eta ez da gutxi. Oso gustura egindakoarekin" azaldu zuen, proba bukaeran Aralar Mendik plazan antolatutako auzate ederrean. Pandemiagatik iaz ezin izan zen auzatea egin, eta horregatik, aurtengoak zapore bereziagoa izan zuen. Ingurunean ere giro ede-

**"URTE ASKO DIRA, ETA MARKARI EUSTEA KONTENTU EGOTEKO MODUKOA DA" A. MUNARRIZ**

rra zegoen, jende asko hurbildu baitzen sari emate ekitaldira. Beriaingo giro ederrak herrian izan zuen segida.

Handik gertu zegoen Jose Luis Beraza uharte arakildar beterranoa. Bitan igo zen podiumera, beterranoen sailkapenean hirugarren sailkatu zelako, Mikel Beunzaren eta Anartz Etxeberriaren atzetik, eta lehen uharte arakildararen saria jaso zuelako. Urtero igotzen da podiumera, eta Km Bertikaleko makina bat sari ditu, erakusketaz jartzeko modukoa. "Bai, asko ditut, egia esan (kar, kar). Aurten oso gutxi entrenatu dut, beroarengatik. Behar bezala entrenatzeko urte txarra izan da, eta ez nekien oso ongi zein sasoiarekin iritsiko nintzen. Hortaz, kontentua" zioen. Bere errekorra 45:30-koa da, aurten 49:15-ko denbora egin du "eta oso pozik, Bertikalean urte asko direlako. Aurten 53 urte beteko ditut, atera kontuak" nabarmendu zuen, irribarrez.

## Azkorbebeitia, berera

Oihana Azkorbebeitiak bere bigarren Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala lortu zuen (48:58). "Asteburu hau hutsik nuen eta Bertikalera animatu nintzen. Gustura ibili naiz. Ez nuen joan zen urteko irabazle Maria Ordoñez ezagutzen, eta erreferentzia gabe joan naiz, nirera. Gustura ibili naiz" azaldu zuen txapela jasotzera igo baino lehen. 2018 urtean egindako denbora

(48:54) baina lau segundo gehiago egin zituen. Beraz, maila be-rean segitzen du Abadiñoko korrikalariak, "eta hori da pozgarriena". Lasterketa irabazteaz gain, emakume veterano onenaren saria jaso zuen. Inma Pereiro bigarren veteranoa izan zen eta Ainhoa Lendinez hirugarren. Pozarren igo ziren podiumera. Sakandarrei dagokienez, Maite Beregaña uharte arakildarra izan zen lehen sakandarra, sailkapen orokorren 100. postuan eta emakumezkoetan zortzigarren (59:14). Horretaz gain, herriko emakume onenaren saria jaso zuen. Bi sarirekin joan zen etxera uharte arakildarra, eginda-koarekin kontentu.

Junior mailari dagokionez, Ibai Angulo azpeitiarrak jaso zuen lehen saria, Eneko Etxaniz elgoibardarraren eta Martin Egizabal elgetarraren aurretik. Emakumezkoetan, junior bakar-rak hartu zuen parte, Bidania-ko Irene Iturriak.

#### Balorazio ona

Aralar Mendik egunaren balorazio ona egin zuten. "Eguraldia primerakoa izan da, proba ere



Oihana Azkorbebeitiak, ezkerrean, eta Loic Robertek, eskuinean, erakustaldi ederra eman zuten.

ikusgarria, ikusle asko izan dira eta korrikalariak gustura daude plazako auzatean. Dena ongi atera da eta ezin dugu ezer gehiago eskatu" zioen Juanjo Goikoe-txeak, sari ematea bukatu bezain pronto, proba aurrera ateratze-

ko laguntza ematen duten babesleen eta boluntarioen lana eskertuz. Antolaketa lanetan zebilen ere Amaia Razkin mendi korrikalaria, eta baita uharte arakildar ugari ere. Gero denak bazkarian bildu ziren, merezita.

#### Lekukoa: Olazti eta Etxarri

Urriaren 1ean XIV. Olatzagutia-Urba mendi lasterketa jokatuko da, eta urriaren 2an 47. Mendira Joan Etorria, Etxarri Aranatzen (izena emateak zabalik, Olaztikoa asteazkenara arte).

## Sakandarrak Bertikalean

### Uharte Arakil-Berriain Km Bertikala (5 km)

Gizonak	
1. Loic Robert	40:21
14. Aritz Munarriz	46:44
26. Juan Larrea	49:10
27. Jose Luis Beraza	49:15
38. Aimar Araña	51:00
43. Mikel Satrustegi	51:16
66. Andoni Ocaña	54:22
69. Xabier Aizpun	54:57
71. J. Jav. Beregaña	55:04
95. Kepa Gordo	58:45
99. Xabier Ganboa	59:11
104. Javier Larrayoz	59:33
117. J.A. Salgado	1:00:40
121. Carlos Mañeru	1:01:01
122. Jorge Vitoria	1:01:08
140. Erik Gonzalez	1:03:31
146. Igor Maiza	1:04:52

Emakumeak	
5. Oihana Azkorbebeitia	48:58
100. Maite Beregaña	59:14
123. Eneritz Karasatorre	1:01:08
124. Ainara Galarza	1:01:10
134. Maria Risco	1:02:54
155. Erkuden S. Martin	1:07:53
173. Ane Huarte	1:27:11

\*Oharra: Jokin Vilariñok eta Alatz Agirrek ezin izan zuten proba bukatu.

# Fernandez eta San Martin, Ergoienako Biran lehenak

**ATLETISMOA** Larunbatean 20 korrikalaritik gora animatu ziren Ergoienako hiru herrien arteko 8,5 kilometroko ibilbidea osatzera. Asier Estarriaga eta Erkuden San Martin, emakumezko irabazlea, izan ziren lehen sakandarrak

Goiz fresko baino eguzkitsuan jokatu zen Ergoienako Udalak Lasa Kirolaken laguntzarekin antolatutako XVI. Ergoienako Bira, Joxe Mari Merceroren 2. Saria. Aurten Lizarragan hasi eta despeditu zen. Hasieran kategoria txikiko lasterketak jokatzen ziren, eta berehala abiatu ziren proba nagusiko lasterkariak. Ergoienako hiru herriak batzen zituen 8,5 km oso gora-beheratsu zizuten aurretik. Lizarragatik abiatuta, Unanura heldu ziren, handik Dorraoraino jotzeko. Dorraon buelta hartuta, lasterketa atzera ere Unanura sartu zen eta Lizarragako helmugarantz abiatu zen.



Ergoienako Birako podiuma. UTZITAKOA

## Sakandarrak Ergoienan

### Ergoienako Bira (8,5 km)

Gizonak	
1. Sergio Fernandez	32:22
2. Asier Estarriaga	32:36
3. Adur Senar	33:34
4. Mikel Imaz	37:57
5. Ander Juanikorena	42:06
6. Felix Garcia	42:39
8. Fernando Hernandez	43:18
9. Juan Pedro Ariz	43:47
10. Jon Melchor	43:51
12. Aritz Garcia	46:04
14. Aingeru Azazeta	46:15
15. Mattin Juanikorena	47:46
16. Santi Agirre	48:14
17. Iñigo Orella	48:25
19. Jose Maria Elola	52:04

Emakumeak	
7. Erkuden San Martin	43:04
11. Rosa Orofino	45:01
13. Maite Zabaleta	46:08
18. Naroa Sarobe	51:17

Irteera hartu zuten hogeitakorrikalari pasatxoak –Altsasuko festak zirela nabaritu zen parte hartzean– ttanttaka joan ziren helmugara iristen, Ergoienako Biraren gogortasunaren isla.

Izan ere, horrenbesteko gora-beherekin, erritmoa hartzea nekeza izaten da. Azkarrena Sergio Fernandez izan zen (32:22). Fernandezek 14 segundo atera zizkion Asier Estarriaga etxarriarrari, eta Adur Senar lakuntzarrak osatu zuen podiuma (33:34). Azken biak, lizarragarren semeak izaki, gustura igoko ziren Ergoienako podiumera.

Emakumezkoetako trofeoa, Unanuko ittotietako mamoxarroen katola preziatua, Erkuden San Martin etxarriarrak lortu zuen (43:04). Rosa Orofino sailkatu zen bigarren (45:01) eta Maite Zabaleta etxarriarra hirugarren (46:08).

#### Sakanako Koparako baliagarria

Ergoienako Bira Sakanako Mankomunitateak antolatutako XVII. Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarirako baliagarria zen, ekainean jokatutako Zor-diko Herri Kros Solidarioarekin eta Aitzkozar Herri Krosarekin batera. Lasterketa bakar-ra geratzen da Kopa erabakitze-ko: abenduaren 8an Altsasun jokatuko den Barricarteren Oroime-nezko Oinezko Lasterketa.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 23

## ALTSASU Gazte Agenda.

Ate irekiak Intxostiapunta gazte gunean.

18:00etatik aurrera,  
Intxostiapuntan.

## ALTSASU Aurkezpen jaialdia.

Ikasle Abertzaleak-en  
Antolakuntzaz bidea egiten eskola ibiltariaren aurkezpena,  
gaztetxean.

19:00 Aurkezpena.  
19:30 Pintxopotea.  
20:00 Kantautoreak.

## OLATZAGUTIA Kontzertua.

Jorge Sanchez kantautorearen  
Silvio en ti... y en mi emanaldia.  
19:00etan, San Migel plazan  
(euriarekin kultur etxean).

## ETXEBERRI Hitzaldia.

Aixitako gaztelua: Arakilgo zaindaria Iñaki Sagredoren hitzaldia. 2011-2020 artean Aixita gazteluan egindako esku hartze arkeologikoei buruzko hitzaldia. 2022ko Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ondare jasagarriak programaren barruan.  
19:30ean, kontzeju etxean.

## LARUNBATA 24

## UHARTE ARAKIL Lehia solidarioa.

Adano minbizia duten haurrak laguntzeko elkartearen aldeko aizkolariaren eta korrikalariaren lehia.

Pailazoak, puzgarriak, txiki eta handiendako tatuajeak, aurpegi margotzeak, herri jokoak, jostailuen merkatu txikia, gazta, txistorra, ardoa eta sagardo dastaketa, txikiendako zumba...  
10:00etatik 14:30era, plazan.

## ALTSASU Gazte Agenda.

Ate irekiak Intxostiapunta gazte gunean.  
18:00etatik aurrera,  
Intxostiapuntan.

## ETXARRI ARANATZ Dantza eta musika emanaldia.

Etorkizuna Dantza Taldearen eta Etxarri Aranazko Abesbatzaren emanaldia.  
19:00etan, plazan.

## OLATZAGUTIA Ikuskizuna.

Camut Band konpainiaren Big drums perkusio eta zirkio emanaldia.  
19:00etan, kultur etxean.

## ALTSASU Umore ikuskizuna.

Oscar Terolen Mundo para lelos antzezlanaren emanaldia.  
20:00etan, Iortia kultur gunean.

## IGANDEA 25

## ZIORDIA Sakanako txirindulari eguna.

Ziorditik Irurtzunerara joanen dira txirindulariak.  
09:30ean, parkeetik.

## OLATZAGUTIA Haurtxoendako ikuskizuna.

Bambola Teatro konpainiaren Nadar antzezlanaren emanaldia. 6 hilabete eta 5 urte bitarteko haurrendako.  
12:30ean, kultur etxean.

## OLATZAGUTIA Magia ikuskizuna.

Txan Magoaren emanaldia.  
18:00etan, San Migel plazan  
(euriarekin kultur etxean).

## ALTSASU Elkarretaratzea.

Euskal preso eta iheslariak etxera.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 26

## ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.  
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

## ASTEARTEA 27

## IRURTZUN Ate irekiak.

Karate arte martzialaren klase baten ate irekiak.

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO NAGUSIAN

**Padre no hay más que uno 3**  
gaurkotasunezko filma  
Ostirala 23 19:00  
Igandea 25 19:30

**Filmoteka Nafarroa: Las pelotaris**  
film dokumentala  
Astelehena 26 19:00

**Dios mío, ¿pero que nos has hecho?**  
gaurkotasunezko filma  
Osteguna 29 19:00  
Ostirala 30 19:00

17:00etan, kiroldegian.

## ASTEAZKENA 28

## IRURTZUN Bioletak bakearen alde tailerra.

Bakea eta Bizikidetzaz lantzen duten liburutegiak programa.  
Gidariak: Inma Gurreak, Izaskun Mujikak eta Marisa Serranok.  
Bake prozesuetan emakumeen figuraren oinarritzen da tailerra. 5 eta 8 urte bitarteko haurrendako.  
18:00etan, liburutegian.

## OSTIRALA 30

## ALTSASU Gazte Agenda.

Sexgunea.  
18:00etatik aurrera,  
Intxostiapuntan.

## LAKUNTZA Batzarra.

Elai Alai dantza taldearen ikasturte hasierako bilera orokorra.  
18:30ean, kultur etxean.

## ARBIZU Liburu aurkezpena.

Alberto Barandiaranen Gure falangista zen liburuaren aurkezpena.  
18:30ean, liburutegian.

## OLATZAGUTIA Kontzertua.

Jorge Sanchez kantautorearen Silvio en ti... y en mi emanaldia.  
19:00etan, San Migel plazan  
(euriarekin kultur etxean).



IRURTZUN Nueve fotopoema erakusketa.  
Urriaren 9ra arte. Pikuxar tabernan.



ARTXIBOA

ETXEBERRI Aixitako gaztelua: Arakilgo zaindaria esku hartze arkeologikoei buruzko erakusketa. 2022ko Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ondare jasagarriak programaren barruan.  
Irailaren 23an 18:00etatik 20:00etara, 24an 11:00etatik 13:00etara, 25ean 11:00etatik 13:00etara, 30ean 18:00etatik 20:00etara, urriaren 1ean 11:00etatik 13:00etara eta 2an 11:00etatik 13:00etara. Kontzeju etxean.

## JAIOTZAK

- Youcef Arroudj Guerrache, abuztuaren 23an Irurtzunen
- Alaine Iriarte Gil, irailaren 13an Arbuzun

## EZKONTZAK

- Elena Maria Agirre Herrada eta Mirian Yoseth Vallecillos Dubon, abuztuaren 8an Irurtzunen

## HERIOTZAK

- Jose Maria Zabaleta Santa Maria, irailaren 9an Etxarri Aranatzan
- Juan Andres Galarza Lopez de Goikoetxea, irailaren 18an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELA



**Juan Andres  
Galarza Lopez de Goikoetxea**  
1938-2022

Urritik urrira,  
betiko gutun gure bihotzetan

**Familiakoak**  
Urdiainen, 2022ko urria/irailaren 18an

ESKELA




**Juanan  
Ibañez de Opakua  
Amillano**

Guk ibilitakoak gureak dira  
Ez adiorik

**Zure lankideak**

ESKELA



**Asuncion  
Jaka Igoa**  
(Karlos Apestegia Jaka euskal presoaren ama)

Zuk hasitako bidie jorratzen seittuko diau.  
Lurrak goxo har zaitzala Asuncion.

**Etzarriko Senideak**

OROIGARRIA



**Asun  
Sala  
Iribarren**  
I. urteurrena

Ahazten denean  
bakarrik hiltzen da.

Guk ez zaitugu  
inoiz ahaztuko.

**Etbeakoak**



**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €  
prezio hauek BEZa bame dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

#### IRAGARKI SAIL KATUAK

##### LANA/NEGOZIOAK

##### LAN ESKAINTZA

**Irurtzango Pikuxar tabernak asteburuetarako bi langile behar ditu:** sukaldari laguntzailea asteburuetarako (esperiencia eta euskara baloratuko dira) eta asteburuetarako zerbitzaria (euskara ezinbestekoa, esperientzia baloratuko da). Interesatuak bidali [Cva.pikutaberna@gmail.com](mailto:Cva.pikutaberna@gmail.com) helbide elektronikora.

##### IKASTAROA

**Arakilgo ikastaro eskaintza:** Yoga lhabarren, astelehenetan eta ostegunetan, bi txandatan: 17:00 – 18:30 / 18:30 – 20:00 (Urriaren 4tik hasita urtarilaren 30era arte), mantenimendu soinketa (egunak eta ordutegia taldean zehazteko), Eskulanak (astelehenetan 10:30 – 12:30), sasoitsu bizi +60 (asteazkenetan

10:30-12:00), mugikorra eta ordenagailua +60 (ostegunetan 11:00-12:30), oinarritzko konpetentzia digitalak (astelehenetik ostiralera 16:00-20:30), sukaldaritza ibiltaria (ostiraletan bailarako elkarteetan). Izena emateko epea zabalik 634 584 226 – 948 500 101 telefonoetara deituz, [arakil-kultura@gmail.com](mailto:arakil-kultura@gmail.com) - [info@arakil.net](mailto:info@arakil.net) postetara idatziz, irailaren 29ra arte.

**Gaixotasun kronikoa duen pertsonaren zaintza profesionala Altsasun:** Nafarroako Enplegu Zerbitzuak antolatutako ikastaroa langabetuei zuzenduta dago. Urriaren 3tik 28ra, 9:00etatik 14:15era, lortia kultur gunean izango da. Informazio gehiago 658 531 552 edo [formacion@includenavarra.es](mailto:formacion@includenavarra.es) emailen. Izen ematea Altsasuko Enplegu Zerbitzua- ren egoitzan.

##### LEHIAKETA

**Arbizuko Txistor egune-ko pintxo lehiaketan izen ematea zabalik:** Udalak jakinarazi duenez 7 lehiakidera mugatuko du lehiaketa, jende gehiagok izena ematen badu zozketa egingo dute. Izena eman eta parte hartuko duten pintxo egileek, gastuengatik, 30 euro jasoko dituzte udalaren eskutik. Urriaren 6an amaitzen da izena emateko epea.

**Arbizuko gaztetxokoan izena emateko epea zabalik:** 11 eta 14 urte artekoendako gaztetxoko zerbitzua lastaileen zabalduko ditu ateak eta maiatzera arte izanen da martxan, asteburuetan begiraleen ardurapean. Udalak jakinarazi duenez, larunbat eta igandetan zabalduko ditu ateak gaztetxokoak, 17:00etatik 20:00etara. Hala ere, ordutegi hori gazteekin adostuta aldatu egin daiteke ikasturte hasieran. Gaztetxokoan izena ema-

teagatik 50 euro ordaindu beharko dira ikasturte guztirako, 80 euro familiako bi kide baldin badao, epea irailaren 30ean amaitzen da [info@arbizu.eus](mailto:info@arbizu.eus) emailera idatziz edo 948 460 017 tfnora deituz.

##### OHARRAK

**Odol emateak Altsasun:** irailaren 27, 28 eta 29an, 17:00etatik 20:30ra eta 30ean, 9:30tik-13:00etara, Osasun Etxean.

**Altsasuko Txantxari ludotekan izena emateko epea zabalik:** 2014-2010 urte bitartekoak astelehen, asteazkena eta ostirala 15:30-16:45, astearte eta ostegunetan 18:30-20:00 ordutegian artean aukeratzeko aukera, 2015-2018 haurrek astelehenetik ostiralera 17:00-18:15 aukeratzeko, eta 2022-2019 urte bitartean jaiotako haurrek doan heldu batek lagunduta (astelehena, asteazkena eta ostiraletan

18:30-20:00). 4-12 urte bitarteko izen-emateak astean saio bat edo bi izango dira gehienez eta urteko kuota 5 euro izango dira. Plaza mugatuak direnez, onartzeko, inskripzioaren ordena kontuan hartuko da. Izen ematea eta ordainketa irailaren 28ra arte 948012012 telefonora deituz, Informazio gehiago [ludoteka@altsasu.net](mailto:ludoteka@altsasu.net) edo 948 467 471 telefonon.

**Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gazte- txoen artean Mintegian izen ematea zabalik:** irailaren 28an Iruñeko Kondestablearen jauregian burutuko den mintegian izena emateko epea irailaren 26an amaitzen da. Mintegia Iruñeko Komunikabideak Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren Sustapen batzordearen ekimenez antolatu da. Goiz osoko gitarrak du. Informazioa eta izen ematea Euskaltzaindiaren Nafarroako Ordezkaritzan,

948 223 471 telefonon edo [nafarroardez@euskaltzaindia.eus-era](mailto:nafarroardez@euskaltzaindia.eus-era).

**Uharte Arakilgo Sanmi-geletako play back txapelketako izen ematea:** irailaren 30ean, ostirala- rekin, 20:00etan, play back lehiaketa jokatu da udal txapelketan. Izen ematea egunean bertan egin behar da, 19:00etatik 19:30era. Abestia izena ematean aurkeztu beharko da USB memoria batean. Kantua mp.3 formatua izan beharko du. Udalak eskatu du aurkezten diren USB memorieta abestia besterik ez egotea.

**Arbizuko Txistor egune- rako deialdiak:** Arbizuko Udalak herritarrei lanerako deia egin die eguna behar bezala antolatzeko, izena emateko 618 235 315 telefonon izena eman dezake. Azokan saltzen egon nahi dutenek 675 894 913 deitu egin behar dute.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70  
📧 @Grupolrache  
📱 Grupolrache  
🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

# Liburutegietan bakeaz eta bizikidetzaz

Nafarroako Gobernuak 'Bakea eta Bizikidetzaz lantzen duten Liburutegiak' programa martxan jarri zuen ekainean, eta udan zehar herrialdeko zenbait herritan egon da. Irailaren 28an, Irurtzunen, Sakanan eginen den azken tailerra izanen da.

Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirol Departamentuko Liburutegi Zerbitzuak eta Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuko Bizikidetzaz eta Giza Eskubideen Zerbitzuak elkarrekin Bakea eta Bizikidetzaz lantzen duten Liburutegiak programa martxan jarri dute, Garapen Jasangarriko Helburuen 2030 Agendaren ekintza estrategiaren barruan. Ekainean, uztailean, abuztuaren eta irailean zehar, haurrendako, nerabeendako eta helduendako aurrez aurreko bederatzi tailer antolatu dituzte Nafarroako liburutegi publikoek. Guztira, 48 liburutegik parte hartu dute programan,



Izaskun Mujika, Inma Gurrea eta Marisa Serrano tailerlean. UTZITAKOIA

tartean Urdiaingo eta Irurtzungo liburutegiek, eta 110 saio sustatu dituzte. Naizen, Alboan, Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Nafarroako Sarea, Ideas Fundazioa eta Ouplay enpresa eta elkarteek dinamizatu dituzte tailerrak. Landu dituzte gaiak: bakea, sareetako indarkeria, aniztasuna (desgaitasuna duten pertsonak; transexualitatea), errefuxiatuak, pobrezia eta bazterkeria. Artea, bizipen eta hausnarketaren bidez landu dituzte.

## Bizikidetzaz eta bakea

Nafarroako Gobernuak programa honekin "pobreziaren amaiera, zero gosea, osasuna eta ongizatea, kalitatezko hezkuntza, desberdintasunen murrizketa eta bakea, justizia eta erakunde sendoak" sustatu nahi ditu. Horretarako, zortzi ikastaro prestatu dituzte: *Bioletak bakearen alde*, *Ametsen kuxkak*, *¿Qué tal si yo estoy yo y tú estás tú?*, *Ezagutu zure superboterea*: *Inklusioa*, *Konektatuta dauden banakoak*, *IKT-en erabilerarako familia kontratuak*, *Fake news* eta *Mugez harago*. Nafarroa osora iritsi dira jarduerak, eta

Sakanako kasuan *Ametsen kuxka* tailerra Irurtzunen izan zen ekainaren 30ean eta *Bioletak bakearen alde* abuztuaren 17an, *Mugez harago* abuztuaren 24an eta *Begirada ezberdin baten alde* abuztuaren 31n, Urdiainen. Edizio honetako programaren azken jardura irailaren 28an, asteazkena, 18:00etan, izanen da Irurtzungo liburutegian: *Bioletak bakearen alde*.

Bioletak bakearen alde Inma Gurrea, Izaskun Mujika eta Marisa Serranok dinamizatutako tailer bat da, eta bi zati ditu: lehenengoa ahozko kontakizunetan oinarritutako da eta bigarren jardura praktikoa izanen da. Bake prozesuetan emakumearen irudiari dagokionez, indarkeriarik gabeko mundu bat lortzeko emakumeen papera funtsezkoa dela oinarrituta, milioika emakumek gatazketan edo egoera delikatuatan egiten duten lan isila balioesten da. Kontakizunerako narrazio-lotura Jeanette Winter-en *Wangari* eta *bakearen zuhaitzak* ipuinean oinarrituta dago. Alderdi artistikoarekin bioleten kate bat sortu nahi dugu, liburutegiak bakearen alde batuko dituen



## BAZTERRETIK

JUAN KARLOS LOPEZ-MUGARTZA

## Gonzalez Aziluren arrano beltza

1200, 1332, 1379... 1512... 1609, 1789, 1794... 1839, 1878... 1931, 1937, 1966, 1971... eta "1975" esan ondoren Iruñeko Gayarre Antzokian minutu bateko ixilunea gorde zen. Madrileko kazetariak esan zuten bezala: "tentsio emozionala nabarmena zen antzokian". Izan ere, Arrano Beltza obra koralaren estreinaldian, antzokia bete-beteta zegoen. Ez zen orratz bat bera ere kabitzen. Hasi eta berehala, Iruñeko Ganbarako Abesbatzako Munarriz jaunaren aurkezpen hitzen ondoren, debekatuta zegoen ikurrin handi-handi bat zabaldu zen anfiteatroan.

1977ko urtarrilaren 11 zen eta Arrano Beltzarekin joan ginen, joan, nafarrak Gayarre Antzokira Gonzalez Azilu altsasuarraren maisulana entzutera, eta Josean Artze

"Hartzabal" olerkariaren mezuaz jabeturik, eta itozten gintuzten kateak hausteko asmo sendoarekin, itzuli ginen etxera.

Joan den astean Altsasuko jaietan izan nintzen eta Gonzalez Aziluren etxe ondotik pasatzean, buruhandien botxintzak eta txarangen musikek orduko garai haietan bizitakoa ekarri zidaten burura eta egun haietan gertatukoaz idatzi zena irakurtzera eraman ninduen.

Gonzalez Aziluren kontzertu hartakoak Etxarri Aranatzan egin behar zen euskal alkateen bilkuraren aurreko egunak ziren. Sakanara 176 alkate etorri behar ziren, 70 nafar, 50 gipuzkoar, 42 bizkaitar, 14 arabar (horietako 2 Trebiñokoak). Errepide guztiak kontrolatzen beteta

zeuden, autobus eta auto guztiak buelta ematera behartuz. Auto iladak 40 kilometrokoak izan ziren. Gasteiztik Altsasuraino, Iruñetik Arbizuraino, bidea guztiz kolapsatuta zegoen.

Etxarriko orduko alkate Javier Mauleon jaunak komunikatu bat irakurri zuen Amnistia, euskara ofiziala Euskal Herri osoan, ikurrinaren legalizazioa eta Euskal Estatutua eskatuz Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabarentzat.

Etxarri iristerik izan ez zutenak inguruko herri, mendi eta zelaietan manifestatu ziren eta Arrano Beltzaren hegalean itzalaren babesaren promesean, berriro ere ez geniekeela sartzen utziko, ez genuekeela inoiz ere gehiago hartuko eta leihatila ixten behingoz ikasiko genuekeela zin eginik, Euskal Herri bateratu eta libre batekin egin genuen amets.

## Bi sakandar Esperanto Nazioarteko Abesbatzan

Tolosan egindako Bakearen inguruko jardunaldiaren barruan lau abesbatzak kontzertua eman zuten.

### SAKANA

Irailaren 17an, larunbatean, UNESCOren eskutik XX. Nazioarteko Bakearen Jardunaldia egin zen Tolosan. Goizean nazioarteko hainbat adituk bakegintzaz jardun ziren TOPIC zentroan, eta arratsaldean lau abesbatzak Leidor antzokian kontzertu bat eskaini zuten. Madrilgo Gazte Abesbatzak, Euskal Herriko Gazte Abesbatzak, Esperanto Nazioarteko Abesbatzak (Internacia Esperanto Koruso) eta Kolonbiako Cecilia Espinosa Kamera Abesbatzak parte hartu zuten emaldian.

Guztira, 140 koristak parte hartu zuten Tolosako emaldian, eta Esperanto Nazioarteko Abesbatzan bi sakandarrek parte hartu zuten: Rafa Atxuri eta Genaro Paniagua. Erreperitorioan, besteak beste, Finlan-



Paniagua eta Atxuri Tolosan. UTZITAKOIA

dia, Ukraina, Hegoafrika eta Euskal Herriko zenbait pieza interpretatu zituzten.

Lau abesbatzen kontzertuari amaiera emateko Josu Elberdin konpositorearekin sorkari berria, *Zatoz* eskaini zuten koral guztiek batera.

# Nola egiten da tokien dolua?

Castillo Suarez idazle altsasuarrak eta Juantxo Zeberio musikariak 'Alaska' deitutako poesia errezitara eman zuten Donostiko Poesia Orduak ekimenean. Xabier Lozanok Victoria Eugenia kluba abandonatutako hotel batean bihurtu zuen

## Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Datorrenaren *teaser* bat egin du Castillo Suarezek irailaren 7an Donostiako Victoria Eugenia klubean egindako poesia errezitalean. Izan ere, urte berriaren Elkarren eskutik argitaratuko den *Alaska* liburuaren aurrerapen bat izan zen. Aurrerapena youtuben ikus daiteke, eta irarkutzeko liburuxka ere kaleratu dute, momentuz. "Dena gurutzatuta dago". Urtero Donostian Euskal Jaiak antolatzen dituzte eta horien barruan Poesia Orduak egiten dira. Bi errezitale egiten dituzte, eta Suarezek errezitale bat egitea proposatu zioten. Hurrengo egunean Joseba Sarrionandiak egin zuen poesia errezitalea. "Errezalde pentsatu nuen *Elurra elurraren gainean* nire azkeneko liburua denez horri buruz egitea, baina ikusi nuen ez zuela horrelako gauza baterako ematen". Idazleak argi zuen Juantxo Zeberioarekin egin nahi zuela emanaldia, "nire ilusioa zen bararekin egitea", proposatu zion eta orduan erabaki zuten "ezetza", liburu hori ez zutela haintzat hartuko eta, orduan, Alaska hotelari buruz zituen testu batzuk hartu zituen.

"Alaska sinbolo bat da. Erreztalean emakume batek esan zidan berak bazuela Alaska bat". Memorian gelditzen diren toki horiek dira Alaska. "Gure oroitzapenei lotuta dauden tokiak". Aurretik horren inguruko zenbait testu eginda zituen Suarezek, eta propio errezitaleko gehiago egin zituen: "Berezi da alde horretatik, nik normalean narratiborik ez dut egiten, baina poema sueltoak egin ordez, hari narratibo bat egin nuen". Material "dezente" bazuen, baina emanaldirako

osatu behar zuela esan du idazleak. "Nik normalean poemak liburu batean irakur daitezzen idazten ditut, eta ez da berdina irakurtzeko egitea edo emanaldi baterako egitea".

Poesia Orduak ekimenean egindako poesia errezitaleak hiru hanka zituen, eta sortzaileen asmoa behin bakarrik egitea zen: "Nik testuekin, Juantxo Zeberio musikarekin, gauza bera, sortu zituen melodia batzuk eta nik adibidez eskatunon *Bortü txoria* izeneko kanta, testuan aipatzen den bezala, gure oroitzapenekin lotuta dauden kantak direlako". Hirugarren hanka Xabi Lozano izan zen eta Victoria Eugenia klubak hotel abandonatu baten itxura har zezan egokitu zuen; altzariak, euria erortzen zen... "Izugarrizko lan teknikoak izan da".

## Alaska

Poesia errezitale eta antzerki birtarteko zerbait izan zen Alaska: "Bueno, bai. Niri izugarri kostatu zitzaidan zerbait da; ni ez naiz gauza horietan batere trebea. Bakoitzari berea" Baina eszenografia eta "giroa" kontuan hartuta, laguntzen duela esan du Suarezek. Poesia errezitale honen atzean "izugarrizko" lana dago. "Gauzak sortzen, musika egokitzen eta biak uztartzen, eta teknikoki ere aretoa prestatzeko diseinua eta goizetik dena muntatzen egon ziren langile guztiak". Emanaldia behin egiteko sortu zuten, "opari bat zen guretzat

**"IRUDITZEN ZAIT JENDE ASKORI PENA EMATEN DIOLA HUTSIK ETA EGOERA HORRETAN IKUSTEA"**

eta gure lagunentzat", baina toki gehiagotan egitea eskatu diete, "baina ez dakigu, egia da areto oso berezia dela Victoria Eugeniako Kluba horrelako atrezzo bat jartzeko".

Alaska hotela N-1 errepidean dagoen hotel bat da, gaur egun abandonatuta dagoena. Zergatik aukeratu du Suarezek Alaska? "Nire etxetik gertu zegoelako. Egia da bide horretatik hotel gehiago zeudela: Leku Ona, Ulaiar, Buenos Aires... Baina Alaska berezia da arkitekturgatik, berezia da nola sortu zuten, zergatik daukan izen hori, pertsona batek Alaskan dirua egin zuen eta hor dago oraindik. Arkitektonikoki izugarria da eta, gainera, igerilekua zeukan". Estetikoki oso nabarmena da Alaska Hotela. "Jende asko zebilelako ere. Oraindik ere askotan pasatzen naiz aurretik, eta iruditzen zait jende askori pena ematen diola hutsik eta egoera horretan ikustea".

Baina Alaska errepide bazterrean dagoen hotel bat baino gehiago da. "Nik uste denek daukagula horrelako toki bat". Ideia Maddi Barberena dela azaldu du idazleak, "Maddi Barberenak Itoiz eta urpean gelditu ziren herriei buruzko dokumental bat egin zuen, eta tokien doluaz hitz egiten zuen: Nola egiten den tokien dolua". Galdera horretatik abiatutako proiektu bat da *Alaska*. "Nola egiten den tokien dolua eta zergatik gordetzen ditugun gordetzen ditugun gauzak, objektuez ari naiz, eta zergatik botatzen ditugun beste gauza batzuk. Zer lotura emozionala dagoen". Suarezek azaldu duenez, askotan hitz egin du giza harremanei buruz, baina ez "gu eta gauzen artean zer lotura dagoen eta zein oroitzapen datozkigun".



Alaska Hotela argazki zahar batean. UTZITAKOIA



Castillo Suarez Donostian egindako 'Alaska' poesia errezitalean. UTZITAKOIA

# "Aurrera egitea satisfazio handia da"

Helduek euskara ikasteko ikastaroak berehala hasiko dira Sakanako AEK-n. Izen ematea zabalik dago, baina lan hori aurreratuta dute dagoeneko Ariane Paniagua Prietok eta Patxi Rabaz Irañetak

Eneida C. M. / Alfredo A. I. SAKANA

## 1 Majo ari zarete hizketan, oraindik euskara ikasi beharra duzue?

**Ariane.** Niretako oso garrantzitsua da, seme-alabekin hitz egiteko. Horregatik, nik jendea animatzen dut. Baliotsua da.

**Patxi.** Nik gauza bera, bera bezala. Azkenean, eredutzat gaituzte eta, hori dela eta, ezinbestekoa da eredu onuragarria ematea.

## 2 Jendeak askotan pentsatzen du euskaltegian izena ematen dutela bakarrik ez dakitenek. Zuen kasuan nola izan zen?

**A.** Ni ezer jakin gabe hasi nintzen. Eta, orain, pila aurreratu dut.

**P.** Hasieran tutik ere ez nekien. Baina urteak pasatu ahala, gutxi gorabehera, hobetu egin dut.

## 3 Zer sentitzen da pausoak aurrera ematean?

**P.** Hasieran gogoz hasten zara. Bat-batean zerotik zerbait ikastera, mundu berri bat irekitzen zaizu. Ondoren, erdigunean, zalantzak sortzen dira: nora helduko naiz? Hau non bukatuko da? Zer aurrerapauso gehiago eman behar ditut? Eta abar. Buakaera ikustean, gogo edo asmo berriak sartzen zaizkizu eta, atzera ere, ilusioz hartzen duzu.

**A.** Niretako satisfazio handia eta harrotasuna daukat. Hasieran ez nuen tutik ulertzen. Orain **GUAIXE** irakurtzen dut, edo bilera bat daukat eta guzti-guztia ulertzea, hori niretako ikaragarria da.

## 4 Euskara ikasteko ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak edo online ikastaroak daude. Zer egin duzue?

**P.** Denetik egin dut: trinkoa, estentsiboak... Joan den urtean



Patxi Rabaz Irañeta eta Ariane Paniagua Prieto, euskara ikasleak.

egin nuen bai Maizpiden, bai AEKn. Horretan gabiltza.

**A.** Joan den urtean B-1 titulua lortu nuen. Baina nik nahi dudana bakarrik hitz egitea da.

## 5 Hitz egiteko, praktikatzeko, euskaltegitik kanpo jendeak laguntzen dizue?

**A.** Zortea dut, Etxarri oso euskalduna da eta jendeak pila bat laguntzen ditu.

**P.** Arbizun gauza bera, moldatzen dira nirekin. Nirekin, oro har, batuaz hitz egiten dute; nahiz eta Arbizuko euskalkia erabiltzea eskatu. Nola edo hala, saiatzen ari naiz haiek nirekin euskalkian hitz egitea. Ni, ordea, oraindik

ez naiz horrela hitz egiteko gai, baina bueno denbora pasa ahala...

**A.** Nahasketa bat, eta oso polita.

## 6 Mintzakiden izena emanen duzue?

**P.** Urte dezente daramatzat programa horretan. Oso egokia da. Eta, gainera, lehen aipatu dudana bezala, euskalkiak mintzatzen dira, lantzen dira. Eta oso garrantzitsuak dira.

**A.** Beharbada aurten animatuko naiz.

## 7 Euskara praktikatzeko, etxekoei, lagunei eskatu diezue?

**P.** Bai. Garai batean eskatzen hasi nintzen. Baina orain, nola

edo hala, nire burua beti eskaintzen dut. Prest nago hitz egiteko.

**A.** Nik hasieran bai. Orain beti saiatzen naiz herrian nire lehen hitza euskaraz esaten. Jada, natural ateratzen da.

## 8 Euskaraldian bezala! Parte hartuko duzue? Edo pentsatzen zaudete?

**A.** Saiatzen ari naiz.

**P.** Parte hartuko dut, dudarik gabe.

## 9 Euskara ikasteagatik ordaintzea, zer iruditzen zaizue?

**P.** "Pagotxa, pagotxa hutsa". Nafarroan gure hizkuntza izan eta gure hizkuntza lantzeko denbora eta dirua bilatu behar ditugu. Hori lotsagarria da.

**A.** Euskara da gure hizkuntza eta gobernuak gehiago egin dezake gure hizkuntza ez galtzeko.

## 10 Momentuz, Sakanako Man-komunitatearen dirulaguntzak daude. Eskatzen dituzue?

**A.** Bai, arazorik gabe. Oso ongi daukagu.

**P.** Gauza bera pentsatzen dut.

## 11 Berehala hasiko da ikasturtea. Baina bukaeran nola ikusten dituzue zuen buruak?

**A.** Gogoz. Nik gramatika asko ikasi nahi dut. Eta, gainera, hobe hitz egin nahi dut.

**P.** Gauza bera. Alaba nagusia jaio zenetik nire txipa aldatu zen: nire proposamena zen euskara hitz egitea eta modu horretan jarraitzen dut.

# Zabaldu udalaren informazioa

UDAL BULETINAK

**gk**

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436  
Foru plaza, 23-1. Altsasu  
info@gkomunikazioa.eus  
www.gkomunikazioa.eus

